

Herritarren parte-
hartzeak Nafarroan
duen egoera

Jarduketan memoria 2020

2020 MEMORIAREN AURKIBIDEA

AURKEZPENA	4
1. NAFARROAKO GOBERNUAK ETA SEKTORE PUBLIKOKO ENPRESEK BURUTUTAKO JARDUKETAK.....	5
1.1. Gobernuko departamentuetan egindako parte-hartze jarduerak.....	5
1.1.1. Departamentuetako kide anitzeko organoen bidez egindakoak.....	5
1.1.2. Gobernuko departamentuetan sustatutako planekin, araudiekin eta beste ekimen batzuekin lotutako parte-hartze prozesuen bidez egindakoak.....	8
1.2. Gobernu Irekiaren eta Herritarrentzako Arretaren Zerbitzuak burututako bestelako jarduerak.....	31
1.2.1. Nafarroako Gobernuaren jarduketak.....	31
1.2.2. Toki erakundeekin lankidetzan egindako jarduketak.....	34
1.2.3. Jarduketak GKEekin eta elkarteekin.....	37
1.2.4. Beste administrazio batzuekiko harremanak.....	38
1.2.5. Parte-hartzearen gaineko sentsibilizazioa areagotzeko eta partaidetza sustatzeko bestelako jarduerak.....	39
1.2.6. Beste erakunde batzuek antolatutako ekitaldiak.....	42
1.2.7. Komunikazio ekintzak.....	42
1.2.8. Gobernu Irekiaren eta Herritarrentzako Arretaren Zerbitzuak herritarren parte-hartzea bultzatzeko aurrekontuaren betearazpena.....	44
2. TOKI ERAKUNDEEK ETA BESTE GIZARTE ERAKUNDE BATZUEK EGINDAKO JARDUKETAK.....	45
2.1. Toki erakundeek burututako ekintzak.....	46
2.2. Herritarren beste erakunde batzuek egindako proiektuak	52
3. NAFARROAKO PARLAMENTUAN ERREGISTRATUTAKO HERRITARREN PARTAIDETZA EKIMENAK	57

4. NAFARROAKO GOBERNUAREN JARDUKETEN AURREIKUSPENA 2021ERAKO.....	58
4.1. Gobernuko departamentuek 2021erako aurreikusitako planak, araudiak eta beste ekimen batzuk.....	58
4.1.1. Planak	58
4.1.2. Araudiak	59
4.1.3. Borondatezko beste partaidetza-ekimen batzuk.....	64
4.2. Herritarren Partaidetzarako Atalak aurreikusitako beste ekintza garrantzitsu batzuk.....	65
5. ERANSKINA	66

Memoria 2022ko uztailen eguneratu da, akats bat antzeman baita 1.1.2.2. apartatuan izapidetutako araudiari buruzko zenbaketan. Araudia prestatzean parte hartzea.

AURKEZPENA

Gobernu Irekiaren eta Herritarrentzako Arretaren Zerbitzuak memoria hau osatzen du, Gobernuaren konpromisoa betetz; izan ere, konpromisoa Nafarroako Parte-hartze Demokratikoari buruzko martxoaren 22ko 12/2019 Foru Legeak ezarri zuen, 45. artikuluan herritarren parte-hartze arloko unitate espezializatu baten ardura –Nafarroako Foru Komunitateko parte-hartze prozesuen urteko oroitidazki bat egitea– aipatu zuenean.

Memoriak 2020an egindako jarduketei buruzko informazioa azaltzen du; hain zuzen, Gobernuan, sozietate publikoetan, toki erakundeetan eta Nafarroako beste gizarte erakunde batzuetan egindako jarduketak jasotzen ditu. Era berean, Nafarroako Gobernuak parte-hartzearen arloan 2021ean aurreikusten dituen jarduketen aurrerapena jasotzen du; hain zuzen, departamentu batzuen plan eta araudi garrantzitsuenak onartzeari lotutako jarduketak aipatzen ditu, baita Gobernu Irekiaren eta Herritarrentzako Arretaren Zerbitzuak planifikatu dituen beste jarduera batzuk ere.

Nafarroako Gobernuari dagokion informazioa, halaber, bi ataletan egituratu da: Lehenengoak departamentuek parte hartzeko burutzen dituzten jarduerak jasotzen ditu; bigarren atalean, aldiz, Herritarren Partaidetzarako Atalaren jarduerak azaldu dira.

Gobernuko departamentuen informazioa hiru azpiataletan antolatu da:

Lehenengoak herritarren parte-hartzearekin zerikusia duten eta departamentu desberdinetan dauden kide anitzeko organoen jarduera aipatzen du. Informazio hori departamentu horietako idazkaritzen arduradunek eman dute. Komeni da aipatzea ez dela jaso lurraldean dauden kide anitzeko organoei buruzko informazioa, hala nola honako hauei buruzkoa: oinarritzako osasun atalak, eskola kontseiluak, hezkuntzako udal kontseiluak, Gizarte Zerbitzuen, Herritarren Segurtasunaren eta abarreko arloko egoitzetako parte-hartze kontseiluak.

Bigarren atalak Nafarroako Gobernuak 2020an sustatu zituen plan, araudi eta bestelako ekimenei lotutako herritarren parte-hartzearen emaitza nagusiak jasotzen ditu. Informazioa Gobernu Irekiaren eta Herritarrentzako Arretaren Zerbitzuak prestatu du, departamentuek emandako datuak erabilia.

Hirugarren atalean, Gobernuak borondatez –araudiak eskatzen ez dituelako– burutu dituen ekimenak aipatuko dira.

Toki erakundeek eta bestelako gizarte erakundeek sustatutako parte-hartzeari buruzko informazioa *onlineko* formulario baten bidez jaso da, eta ekimen horiek burutu dituzten erakunde publiko zein pribatuek zuzenean eman dute, Herritarren Partaidetzarako Atalak dagokion berrikuspena egin ondoren.

2020an gure komunitatean, enpresa publikoetan, Nafarroako toki erakundeetan eta hirugarren sektoreko beste antolakunde batzuetan burututako parte hartzeko ekimenei buruzko atalean dagoen informazioa osatu gabe egon daiteke, datuak ematea borondatezkoa izan delako erakunde sustatzaileentzat; izan ere, beren jarduerak memoria honetan sartzeko aukera jakinarazi zaie.

Bukatzeko, lerro hauen bidez, eskerrak eman nahi dizkiegu Gobernuko departamentuei, sozietate publikoei, toki erakundeei eta gizarte erakundeei memoria hau osatzeko informazioa eman izana eta, bereziki, parte-hartzea esku hartzeko tresna gisa sustatu eta erabiltzen hasi izana, gizarte demokratikagoa eraikitzen laguntzeagatik eta erabaki legitimatuagoak hartzeagatik, horrela, areagotuko baita hurrengo jarduera politikoen eraginkortasuna.

1. NAFARROAKO GOBERNUAK ETA SEKTORE PUBLIKOKO ENPRESEK BURUTUTAKO JARDUKETAK

1.1. Gobernuko departamentuetan egindako parte-hartze jarduerak

1.1.1. Departamentuetako kide anitzeko organoen bidez egindakoak

2020. urtean kide anitzeko organoek garatutako jardueraren laburpena

Kide anitzeko organoetako idazkariek emandako datuen arabera, 2020. urtean **kide anitzeko 41 organoren 81 bilera egin ziren guztira**, honela banatuta:


Kide anitzeko organoa	2020an egindako bileren kopurua
Nafarroako Taxien Kontseilua	1
Nafarroako Garraioen Kontseilua	0
Nafarroako Herritarren Segurtasunerako Kontseilua	0
Nafarroako Estatistika Kontseilua	1
Euskararen Nafar Kontseilua	1
Nafarroako Jokoaren Kontseilua	0
Nafarroako Ingurumen Kontseilua	4
Urbasa-Andia Parke Naturalaren Patronatua	0
Bertizko Jaurerriko Parke Naturalaren Zuzendaritza Batzordea	0
Nafarroako Lanbide Heziketaren Kontseilua	3
Nafarroako Desgaitasunaren Kontseilua	4
Etxebizitza Kontseilua	1
Gazte Informazio Zerbitzuen sarea koordinatzeko Batzordea	0
Nafarroako Artisautzaren Aholku Kontseilua	1
<i>Nafarroako Kulturaren eta Arteen Kontseilua</i>	2
Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioiko eta haren erakunde autonomoetako lanpostuetan desgaitasuna duten pertsonen sarrera sustatzeko Batzorde Mistoa	1
Nafarroako Merkataritza Kontseilua	1
Nafarroako Kooperatiben Kontseilua	1
Nafarroako Eskolatze Batzorde Nagusia	5
Nafarroako Kirolaren Kontseilua	1

Kide anitzeko organoa	2020an egindako bileren kopurua
Nafarroako Eskola Kontseilua	19
Desgaitasuna duten pertsonen Irisgarritasuna eta Aukeraberdintasuna Sustatzeko Kontseilua	0
Nafarroako Gizarte Ongizatearen Kontseilua	6
Nafarroako Ekonomia eta Gizarte Kontseilua	3
Memoria Historikoaren arloko Koordinazio Batzorde Teknikoa	2
Nafarroako Adinekoen Kontseilua	4
Nafarroako Foru Zuzenbide Zibilaren Aholku Kontseilua	2
Arrantzarako aholku batzordea	0
Nafarroako Kontsumoaren Kontseilua	0
Nafarroako Adingabearen Kontseilua	3
Nekazaritzako Elikagaien Artisautza Batzordea	1
Basogintzako Aholku Kontseilua	1
Nafarroako Lan Autonomoaren Kontseilua	1
Nafarroako Turismo Kontseilua	2
Nafarroako Osasunaren Kontseilua	3
Nafarroako Farmazia Laguntzarako Batzordea	0
Ehizako Aholku Batzordea	1
Nafarroako Garapenerako Lankidetzaren Kontseilua	2
Nafarroako Berdintasunerako Kontseilua	2
Nafarroako LGTBI+ Kontseilua	0
Lurralde Politikaren Gizarte Kontseilua	2
Guztira	81

Organo guztietan, guztira, 1.698 pertsonak hartu zuten parte, guztira 1.298 pertsona deituta; hau da, deitutako guztien % 76,44 bertaratu ziren. Bilera bakoitzean parte hartu zutenen batezbestekoa % 76,68 zen.


Era berean, egin ziren 81 bileretatik, % 37,04 kontsultak egiteko egin ziren, % 44,44 gogoeta egiteko, eta % 18,52 informazioa emateko.

Egindako saioen kopurua eta ehunekoa izaeraren arabera



Guztira 365 proposamen aurkeztu ziren; proposamenen % 71,785 onartu ziren, % 24,66 baztertu, eta gainerako % 3,56a aztertu gabe daude oraindik.

Aurkeztutako proposamenen kopurua eta ehunekoa



1.1.2. Gobernuko departamentuetan sustatutako planekin, araudiekin eta beste ekimen batzuekin lotutako parte-hartze prozesuen bidez egindakoak

2020an, Gobernuko departamentuek jarraitu dute planak, araudiak eta beste ekimen batzuk onartzearekin lotutako herritarren parte-hartzea sustatzen, kasu batzuetan, Gobernu Irekiaren eta Herritarrentzako Arretaren Zerbitzuaren laguntzarekin.

1.1.2.1. PLANAK ETA/EDO ESTRATEGIAK

Plan hauek¹ gauzatu dira urtean zehar:

- Nafarroako Suhiltzaileen Zerbitzuaren Plan Estrategikoa: Nafarroako Suhiltzaileak 2020-2023
- Foruzaingoaren Plan Estrategikoa
- Nafarroa Suspertu 2020-2023 Plana

Bakoitzari buruzko informazioa:

✓ **Nafarroako Suhiltzaileen Zerbitzuaren Plan Estrategikoa: Nafarroako Suhiltzaileak 2020-2023**

Nafarroako Gobernuko Lehendakartzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko Departamentuak planifikazio estrategikoko prozesu bat lantzea erabaki zuen 2019ko irailean, Nafarroako Suhiltzaileen Zerbitzua (NSZ) etorkizunerako jarduketa-ildo argiez hornitzeko.


Horretarako, 2019ko urrian, Nafarroako Gobernuko Lehendakartzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko Departamentuko Barneko zuzendari nagusiak Nafarroako Suhiltzaileen Zuzendaritzari eskatu zion plan estrategiko berri bat prestatzeko 2020-2023 laurtekorako, zerbitzua 2030ean izan datekeena erakutsiko diguna. Lehen fase batean diagnostiko estrategikoa egin zen, eta hari jarraituko dio planaren formulazioak eta hedapenak.

Proiektu hori lantzeko, Nafarroako Suhiltzaileen burutzak lantalde bat eratu zuen zerbitzuaren barnean eta, Nafarroako Suhiltzaileen Zerbitzuko gainerako kideen laguntzarekin, agindutako lana bete zuen.

Dokumentuan bildu dira aipatutako lanaren emaitzak, hau da, diagnostikoa, marko estrategikoaren formulazioa, ekintza-planaren hedapena eta hura gauzatzeko beharko diren baliabideen proiektzioa, baita 2030rako Jomuga ere. Nafarroako Suhiltzaile Zerbitzuaren etorkizuneko erronkak ezartzen ahalegintzen da txosten horretan. Planean Suhiltzaileen Zerbitzuaren premietara egokitutako eta behar adinako langileen eta baliabideen hornidura, antolaketa eta kudeaketa eta laguntzako eta larrialdietako beste baliabide batzuekiko koordinazioa aztertzen da sakonki. Planak 5,3 milioi euroko zuzkidura izatea aurreikusten da aurrekontuetan.

¹ 2020. urtean amaitu diren planak bakarrik sartu dira zerrendan. Hasitakoak eta amaitu gabe dauden horiek datorren urteko memorian jasoko dira.

Diagnostikoa egiteko, honako fase hauek berezi dira:



Prozesuaren gardentasunerako, informazioa esteka honetan argitaratu da:

<https://gobiernoabierto.navarra.es/eu/partaidetza/prozesuak/suhiltzaileen-2020-2023-plan-estrategikoa>

✓ Foruzaingoaren Plan Estrategikoa


2019ko irailean, Nafarroako Gobernuko Lehendakartzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko Departamentuak plangintza estrategikoko prozesu berri bat abiaraztea erabaki zuen, 2017-2021 aldirako Plan Zuzentzailea eguneratu eta sinplifikatzeko asmoz; garai hartan, planaren gauzatze maila % 20 ingurukoa zen.

Barne Zuzendaritza Nagusia 2020-2023 aldirako Plan Estrategiko berri bat prestatzen hasi zen, Foruzaingoko estrategia eta berrikuntza taldearekin batera. Lehenik eta behin, diagnostiko estrategikoa egin zuen, eta, ondoren, planaren aurkezpena eta hedapena.

Bestalde, nabarmentzen da, 2019ko apirilaren 30eko Erabakiaren bidez, Nafarroako Gobernuak atxiki zitzaizkion Nazio Batuek onetsitako Garapen Jasangarriaren Agenda 2030 delakoari. Horretarako, Nafarroako Gobernuaren eskumeneko politika publikoak agenda horri egokitzeko, txosten bat prestatu zen, baita haiek ezartzeko Ekintza Plan bat ere. Alde horretatik, Foruzaingoaren Plan Estrategiko berriak erronka horiek betetzeko eginkizuna hartzen du bere gain. Hori dela eta, haren proiektuetako batzuk bat datoz Agenda 2030eko Garapen Jasangarriko Helburuak betetzeko asmoarekin, hazkunde ekonomikoaren, gizarte inklusioaren eta ingurumenaren babesaren bidez garapen jasangarria sustatze aldera.

Dokumentuak proiektuaren taldeak egin duen lanaren emaitzak ez ezik, Nafarroako Foruzaingoa ordezkatzeko sindikatuek aurkeztu dituzten ekarpenak ere biltzen ditu. Hauek hartzen ditu barnean: diagnostikoa, polizia ereduaren zehaztapena, esparru estrategikoko formulazioa, ekintza planaren hedapena, eta hori gauzatzeko beharko diren baliabideen proiektzioa.

Plana garatzeko metodologia honako hau izan da:



Prozesuaren gardentasunerako, informazioa esteka honetan argitaratu

da: <https://gobiernoabierto.navarra.es/eu/partaidetza/prozesuak/foruzaingoaren-plan-estategikoa-2020-2023>

✓ **Nafarroa Suspertu 2020-2023 Plana**

COVID-19ak eragindako pandemia Nafarroarentzat eta Espainiarentzat nazioarteko mailako desafio instituzional, politiko, ekonomiko eta sozial handiena da. II. Mundu Gerra amaitu zenetik.

Koronabirusa gure artean dagoela bizi beharko dugu luzaroan, eta, horrez gain, gure eredu sozial eta ekonomikoa jo du bete-betean, haren ezaugarriak aldatzeraino. Gauzak horrela, beharrezkoa da botere publikoak egoerara egokitzea eta, gainera, oparotasunerako formula berrien sustatzaile ere bihurtzea. Aurrean dugun eredu berriak aurrekoarekin haustea ekarriko duten erantzunak

eskatzen ditu. Aldaketa mamitsuak, iraunkorrak eta berritzaileak behar dira ekonomian nola gizartean. Krisi honen esperientziari esker ikasi egin dugu. Gureganatu dugun jakintza hori baliatu behar dugu modu kolektiboan hazteko, eredu produktibo eta sozial berriak helburu.

Planaren bidez, bizi dugun egoera aztertu nahi da, baita egungo krisitik ateratzeko egin daitezkeen ekintzei buruz hausnartu ere, gizarte indartsuago eta kohesionatuago baten aurrekari gisa, ongizate egoera kalitatezkoa eta iraunkorra bermatuko duten zerbitzu publikoekin. Inbertsio publikoak funtsezkoak izanen dira lurralde garapenari begira taxutu beharko den plangintza estrategikorako.


Krisialditik ateratzeko bidea adimen kolektibotik, denon konpromisotik eta gizarte zibilaren ekarpenetik planteatzen da, eta, horretarako, erantzunkidetasun eta parte-hartze handiagoak dituen eredu bat finkatzeko desafioa eta aukera proposatzen da; horrekin batera, gainditu egin beharko ditugu tentazio populistak, are autoritarioak ere, une honetan dugun salbuespen egoera dela-eta azalartzen edo biziagotzen ari direnak. Gobernantza publikorako eredu berriz pentsatzeko aukera da, eta lidergo berrietarantz jotzekoa, beste balio eta jokabide batzuekin; demokraziaren kalitatea eta herritarren parte-hartzea hobetzeko aukera, alegia.

Plana lantzeko prozesua oinarrizko dokumentuarekin hasi zen, non jaso ziren plana gidatzeko funtsezko elementuak, helburuak, jarduera esparruak eta, hitz batez, plana diseinatu eta taxutzeko balioko zuten elementu giltzarriak.

Maiatzaren 20tik ekainaren 5era bitartean, herritarrek parte hartzeko atal bat gaitu zen Gobernu Irekiaren webgunean; horren bidez, ekarpenak egiteko eta proposamenak garatzeko dokumentazioa jasotzeko aukera eman zen. Guztira, 304 proposamen bildu ziren.

Esteka: https://gobiernoabierto.navarra.es/sites/default/files/propuestas_reactivar_05_06_2020_con_portada_indice.pdf

Proposamenak Nafarroako Gobernuaren departamentuen artean banatu ziren, kasuan-kasuan proposamena onetsi, gaitzetsi, zati batean onetsi behar den edo idatzi beharreko Suspertu Planean jaso behar den esan zezaten. Departamentuek emandako erantzunen ondorioz 436 balorazio jaso dira, honako eskema honetan:



Prozesuaren gardentasunerako, informazioa esteka honetan argitaratu da:


<https://gobiernoabierto.navarra.es/eu/partaidetza/prozesuak/nafarroa-suspertu-2020-2023-plana>

1.1.2.2. Araudia prestatzean parte hartzea

Jarraian agertzen den taulak Nafarroako Gobernuak 2020an izapidetu zituen arauak eta arau horiek onartzeko erabili ziren herritarren partaidetzarako mekanismoak (aldez aurretiko kontsultak eta jendaurrean hartzea) buruzko informazioa jasotzen du.

Departamentua	Parte hartzeko mekanismoa	Zk.
Kultura eta Kirol Departamentua	Aldez aurreko kontsulta publikoa	2
	Jendaurrean jartzea	1
		3
Eskubide Sozialesko Departamentua	Aldez aurreko kontsulta publikoa	1
	Jendaurrean jartzea	3
		4
Landa Garapenerako eta Ingurumeneko Departamentua	Aldez aurreko kontsulta publikoa	15
	Jendaurrean jartzea	15
		30
Hezkuntza Departamentua	Aldez aurreko kontsulta publikoa	11
	Jendaurrean jartzea	10
		21
Ekonomia eta Ogasun Departamentua	Aldez aurreko kontsulta publikoa	0
	Jendaurrean jartzea	4
		4
Lurralde Antolamenduko, Etxebizitzako, Paisaiako eta Proiektu Estrategikoetako Departamentua	Aldez aurreko kontsulta publikoa	0
	Jendaurrean jartzea	1
		1
Migrazio Politiketako eta Justiziako Departamentua	Aldez aurreko kontsulta publikoa	4
	Jendaurrean jartzea	3
		7
Lehendakaritzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko Departamentua	Aldez aurreko kontsulta publikoa	5
	Jendaurrean jartzea	3
		8
Herritarrekiko Harremanetako Departamentua	Aldez aurreko kontsulta publikoa	0
	Jendaurrean jartzea	1
		1
Osasun Departamentua	Aldez aurreko kontsulta publikoa	4
	Jendaurrean jartzea	2
		6
Guztira		85

Guztira 85 prozesu burutu dira: **aldez aurretiko 42 kontsulta publiko eta, araudiak prestatzerakoan, 43 proposamen jendaurrean jarri dira.**



'Aldez aurreko kontsulta publikoa' eta 'Jendaurrean jartzea' ekintzei dagozkien datuen arteko aldea (2020. urtean) 2019an zehar aldez aurreko kontsulta izan zuten araudi batzuk –araudia idatzi ostean– 2020an jendaurrean jarri zirelako sortu zen; halaber, 2020an egindako aldez aurreko kontsulta batzuei dagozkien araudiak 2021. urtean zehar edo hurrengo urteetan jarriko dira jendaurrean.

✓ **Klima-aldaketari eta Trantsizio Energetikoari buruzko Foru Legearen aurreproiektua**

Herritarrek parte hartzeko hainbat prozesuren ostean, KLINA eta 2030erako Nafarroako Energia Plana onetsi egin ziren, Nafarroako Gobernuak 2018ko urtarrilaren 24an eman zuten Erabakiaren bidez.

Izan ere, klima eta energiaren inguruko estrategia bateratuak dira, zeharkakoak; sektoreko politika guztiak jaso eta bateratzen dituzte, klima aldaketa, energia, ekonomia zirkularra eta NBEren 2030 Agendako garapen iraunkorrerako helburuak bezalako arloetan nazioarteko mailan eta Europar hartutako konpromisoak gehituz. Plan bietan aipatu da Foru Komunitateak klima aldaketari eta energia ereduaren trantsizioari buruzko lege bat behar duela, plan bi horietan ezarritakoa lege mailara igotzeko.

2019ko martxoaren 12tik ekainaren 29ra bitartean, herritarren partaidetza prozesua burutu zen, Klima Aldaketari eta Trantsizio Energetikoari buruzko Legearen aurreproiektuaren lehenengo zirriborroari dagokionez.

Nafarroako Gobernuak, Nafarroako Parlamentuak irailaren 23an eta gobernuak berak irailaren 24an klima larrialdiaren adierazpenak onetsi ondoren, egokituz jo zuten lege aurreproiektuaren zirriborroa berrikustea, asmo handiko irizpideekin; ondorioz, zirriborro berri bat idatzi zen, eta hura eztabaidatzeko eta kontsultatzeko prozesua abiarazi zen.

2020ko ekainaren 10ean, aurreproiektuaren zirriborroa prentsaurrekoan aurkeztu zen. Egun berean, zirriborro berria Gobernu Irekiaren web atarian argitaratu zen.


Eztabaidarako eta herritarren partaidetzarako bost saio egin ziren, sektoreka, ekainaren 17tik 23ra bitartean. Saio horiek bideokonferentzia bidez egin behar izan ziren, COVID-19aren ondorioz

alarma egoera deklaratu zelako; programak eta parte-hartzaileen kopuruak honako hauek izan dira:

Sesión	Personas Inscritas			Personas conectadas
	Total	Mujeres	Hombres	
Edificación	64	24	40	49
Movilidad	71	23	48	50
Sector Primario	66	20	46	42
Ámbito Local	76	24	52	35
Sector Empresarial	65	23	42	44
SUMA	342	114	228	220

Partaidetza saioetan egindako ekarpenez gain, 121 proposamen jaso ziren Gobernu Irekiaren web atarian utzitako formularioaren bidez. Proposamen horietatik 45 guztira 19 erakunde, entitate talde edo partikularrek (norberaren izenean) aurkeztutako dokumentuekin batera aurkeztu dira. Halaber, 9 proposamen erregistro orokorraren bidez eta beste 10 proposamen posta elektronikoz jaso dira.

Nafarroako Gobernuaren Ingurumen eta Industriako eta Energia eta Proiektu Estrategikoetarako zuzendaritzek osatutako taldeak proposamenak aztertu, onarpen mailaren arabera sailkatu, eta justifikazio txostena idatzi zuen, honako emaitza hauekin:



Prozesuaren gardentasunerako, informazioa esteka honetan argitaratu da:

<https://gobiernoabierto.navarra.es/eu/partaidetza/prozesuak/trantsizio-energetikoari-eta-klima-aldaketari-buruzko-foru-lege-aurreproiektua>

✓ Arau aldaketa Nafarroako bizigarritasunari buruzko dekretuan

Nafarroako Foru Komunitateak, Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 44.1 artikulua araberako etxebizitzaren arloan eskumena duenez, etxebizitza duin eta egokia izateko eskubidea –Konstituzioaren 47. artikuluan onartutakoa– baliatzea ahalbidetzen duten baldintzak ezarri behar ditu.

Horri dagokionez, uztailaren 17ko 184/1988 Foru Dekretua onartu zen, Nafarroako Foru Komunitateko etxebizitzek bete behar dituzten gutxieneko bizigarritasun baldintzak, bizigarritasun zedulen emakida eta horien kontrola arautzekoa. Aipatu dekretua martxoaren 22ko 142/2004 Foru Dekretuak ordeztu zuen, urtarrilaren 16ko 5/2006 Foru Dekretuaren bidez aldatutakoak. Hamabost urte baino gehiagoz indarrean egon ondoren martxoaren 22ko 142/2004

Foru Dekretua berrikusi behar zen, indarraldian zehar, estatu mailako hainbat araudik dekretuan aipatzen diren alde batzuk arautu dituztelako. Gainera, dekretuko parametroak egokitu behar dira gizarteak –COVID-19aren pandemiaren ostean– etxebizitzari eskatzen dizkion beharren arabera, baita irisgarritasunak, telelanak, familia eta lana bateratzeko premiak, etxebizitza malguagoak izateko beharrak, genero-ikuspegia aintzat hartzen duen diseinuak edo hiri barruko mugikortasunak planteatzen dituzten erronka berrien arabera ere.

Dokumentuaren garrantzia kontuan hartuta, eta ahalik eta proposamen gehien jasotze aldera, dokumentuaren zirriborroa jendaurrean jartzeko epea 4 hilabetez luzatu zen, eta 40 proposamen jaso ziren epe horretan.

Prozesuaren gardentasunerako, informazioa esteka honetan argitaratu da:

<https://gobiernoabierto.navarra.es/eu/partaidetza/prozesuak/foru-dekretuaren-proiektua-nafarroako-foru-komunitateko-etxebizitzetan-gutxieneko-baldintzak>

http://www.navarra.es/home_es/Temas/Vivienda/Ciudadanos/Actualidad/Proceso+de+participacion+en+el+nuevo+Decreto+Foral+de+Habitabilidad+de+Navarra.htm

1.1.2.3. PARTE HARTZEKO BESTE EKIMEN BOLUNTARIO BATZUK

Jarraian aipatzen diren partaidetza ekimenak ez dira egin araudiak betetzeko; beraz, izaera boluntarioa dute.

Honako ekimen hauek gauzatu dira:

Lehendakaritzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko Departamentua

- Nafarroako Urrezko Domina
- Gazteriaren 2020ko Aurrekontu Parte-hartzaileak
- Gazteriaren Foru Estrategia 2020-2023
- Trantsiziorako plana Nafarroan – Normaltasunerako bidean
- Emakume Politikarien Foroa
- Ahalduentze indibidualerako eta kolektiborako programak

Lurralde Antolamenduko, Etxebizitzako, Paisaiako eta Proiektu Estrategikoetako Departamentua

- Arau aldaketa Nafarroako bizigarritasunari buruzko dekretuan
- Nafarroako etxebizitza kolaboratiboari buruzko jardunaldia
- Pirinioetako plana
- Nafarroa Ezagutu Sareko naturagune eta ibilbideak COVID-19aren aurrean
- "Hirigintza COVID garaian: espazio publikoak bizi eta eraldatu" topaketa
- "Jurramendiko paisaia berezian" parte hartzea
- Iruñeko eta inguruko udalerrietako Azpiegitura Berdea
- Ebroko Ardatzaren Lurralde Antolamenduko Planaren (POT 5) esparruari dagokion paisaiari buruzko dokumentua
- Despopulatzeari buruzko azterketa: "Estellerriko Jurramendi Azpieskualdean eta Zangoza eta Erdialdeko eskualdeetan biztanleak kokatzen laguntzeko ekintza lerro, proiektu eta baliabideak identifikatzea"

Migrazio Politiketako eta Justiziako Departamentua

- Pertsona Migratzaileen Foroa

Herritarrekiko Harremanetako Departamentua

- Itzulera Plana egiteko azterketa

Garapen Ekonomiko eta Enpresarialeko Departamentua

- Sentsibilizazio jardunaldiak

LEHENDAKARITZAKO, BERDINTASUNEKO, FUNTZIO PUBLIKOKO ETA BARNEKO DEPARTAMENTUA**✓ Nafarroako Urrezko Domina**

Nafarroako Urrezko Domina Foru Komunitatearen kondekorazio handiena da. Horren bidez, 1982. urteaz geroztik, Nafarroako Gobernuak aintzatetsi ditu gizartea hobetzen, balio demokratikoak finkatzen eta Foru Komunitatearen berri kanpora zabaltzen laguntzeagatik nabarmendu diren pertsona, erakunde, entitate eta kolektiboak.

2020an, hirugarren urtez jarraian, saria jasotzeko hautagaiak proposatzeko aukera eman zitzaizen herritarrei. Lehendakaritzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko Departamentuko presidenteorde eta kontseilaria (Javier Remírez) buru duen epaimahaiak gehienez ere hiru hautagai aukeratzen ditu proposatutako guztietatik, honako irizpide hauei jarraikiz: pertsona edo kolektibo baten jarduera eredugarria, herritar guztien arabera; gizartearen balio demokratikoak sustatzea; elkartasunaren aldeko eta herritarren mesederako ekintzak bultzatzea; kultura, enpresa, gizarte eta abarreko arloen ikuspuntuetatik gizarte justuago eta solidarioagoa eraikitzea bideratutako jarduerak; genero parekotasuna, emakumeen ekarpen soziala aintzat hartzen duena; hezkuntza, osasun, ingurumen eta gizartearen aurrerabidea sustatzea; eta Nafarroaren irudia kanpoan sustatzea.

Epaimahaiak Nafarroako Gobernuari aurkezten dizkio aukeratutako hautagaitzak. Ondoren, Gobernuak, lehendakariaren edo Gobernuko edozein kideren ekimenez, haietako bat aukeratu, eta saria hari ematea onetsiko du, dominaren hartzailak aurretik onartuta betiere.

Deialdi honetan 6 hautagai aurkeztu dira, eta haietatik hiru proposatu dira sariaren hartzaila izateko: Club Atlético Osasuna, bere mendeurrenaren urtean; Gurutze Plaza BHI, 175. urteurrenean; eta Nafarroako osasun langileak eta langile soziosanitarioak, COVID-19aren aurkako borrokaren urtean. Domina azken horrek jaso du.

Nafarroako Gobernuak sanitarioen jarrera nabarmendu du, COVID-19aren pandemian "arreta handiz, beraienezko eta euren familientzako arriskuari aurre eginez, eta oso baldintza txarretan ardura eta esfortzu handiarekin lan egin dutela" esanez. Hautagaitza AFAPNA sindikatuak aurkeztu zuen, orain dela hilabete batzuk; eskabidean saria emateko eskatzen zuen, COVID-19aren pandemian zein beti egiten duten lanagatik, "hura baita gure komunitate osoaren osasunaren bermea".

Esteka: <https://diadenavarra.navarra.es/eu/web/diadenavarra/nafarroako-urrezko-dolina>

✓ Gazteriaren 2020ko Aurrekontu Parte-hartzaileak

Gazteriaren Aurrekontu Parte-hartzaileak herritarren parte hartzerako tresnak dira, 14-30 urte bitarteko gazteek proiektu edo politika publiko baten garapenaren maila guztietan parte hartu ahal izatea ahalbidetzeko; definiziotik ebaluaziora arte, aurrekontuaren zati zehatz baten kudeaketa partekatuen bitartez.

Programa honek gazteek gizartean parte hartzeko gaitasunak ikasteko eta garatzeko gunea izan nahi du, eta izaera integrala, unibertsala eta zeharkakoa izanen du. Horretarako, prozesua gazte

guztiek parte hartzeko irekita dago, barne-hartzailea eta berdintasunezkoa da. Era berean, partaidetua izanen da, eta justizia sozialeko eta jasangarritasuneko proposamenak barne hartuko ditu, Nafarroako gazte guztien mesederako. Programak ez die irabazirik sortzen parte hartzen duten pertsona eta erakundeei.

Tresnaren hartzaileak:

- Nafarroan erroldatuta dauden 14-30 urte bitarteko gazteak.
- Gazteekin –taldeka zein banaka– lan egiten duten gazte elkarteak edo erakundeak, baldin eta Nafarroan erregistratuta badaude.
- Irabazi asmorik gabeko elkarte eta erakundeak, baldin eta beren estatutuetan xedea gazteei zuzendutako jarduerak egitea dela adierazten bada.

Programa arautzeko oinarriak jasotzen dituen ebazpena argitaratu ondoren, eskaerak aurkezteko epea ireki zen; epe hori bat etorri zen konfinamendurekin. Oso eskaera gutxi jaso ziren eta, azkenean, pandemiak eragindako egoera ikusita, proposamenak aurkeztu zituzten pertsonak utzi zuten programa, une hartan bizi genuen egoeraren ondorioz proiektuak burutzeko zailtasunak zirela medio (murrizketak mugitzeko, harremanetarako...).

Hori dela eta, programaren deialdia egin zen, baina 2020. urtean ezin izan da gauzatu.

Esteka: <https://www.juventudnavarra.es/eu/aurrekontu-parte-hartzaileak>

✓ **Gazteriaren Foru Estrategia 2020-2023**

2020ko apirilean, Nafarroako Gobernuaren II. Gazteria Planaren Ebaluazioa onartu zuen Gazteriaren Departamentuarterko Batzordeak. Aipatu ebaluazioa Nafarroako Parlamentuari aurkeztu ondoren, Nafarroako Gazteriaren Institutuak, Gazteriaren Behatokiaren bitartez, Gazteriaren III. Foru Plana prestatzeko agindua jaso zuen erakunde horretatik.

Horretarako, lehenengo fasean, 2020rako Gazteriaren Diagnostikoa egin zen eta, ondoren, Gazteriaren Foru Estrategia 2020-2023 izeneko dokumentua prestatzen hasi zen; azken horrek parte hartzeko dokumentua da, NFKaren Administrazioak gazteriaren arloan ezarri dituen jarraibide nagusiak jasotzen dituena; lehenago aipatutako 2020rako Gazteriaren Diagnostikoa dagoeneko zirriboratu zuen Nafarroako gazteen egoeraren azterketa jaso behar du. 2020-2023 aldirako Gazteriaren Estrategiak berretsi du oso garrantzitsua dela gazteei loturiko politikak zeharka jorratzea, partaidetzarekin eta modu koordinatuan; halaber, gazteen oraingo egoeraren ikuspegi errealista eta operatiboa ematen saiatzen da, COVID-19aren pandemiaren eragina eta ondorioak kontuan hartuta.

Parte-hartzeari dagokionez, 2020-2023 aldirako Gazteriaren Foru Estrategia egiteko, aintzat hartu dira Nafarroako Gazte Kontseiluaren iradokizunak, Nafarroako Berdintasunerako Institutuarenak (dokumentuan genero ikuspegia txertatzeko) eta Nafarroako Gobernuko Gazteriaren Departamentuarterko Batzordeko kideenak.

Era berean, kontuan izan dira gazteei egindako inkestak, besteak beste, emantzipazioa, osasuna, emakumeen eta gizonen berdintasuna, gizarteratzea, ingurumena, balioak eta sinesmenak, kultura, aisialdia eta astialdia, kirolak bezalako gaiak buruzkoak. Horrekin batera, Nafarroako gazteen iritziak, lekukotzak eta pandemiaren ondorioz pasa den martxoan eta apirilean deklaratu zen alarma egoeran izandako bizipenak jaso dira.

Gazteriari buruzko apirilaren 1eko 11/2011 Foru Legean ezarritakoari jarraikiz, Estrategia idazteko prozesuan Nafarroako Gazteriaren Kontseiluak (CJN-NGK) parte hartu du hasieratik, lankidetzak akordioa eginda; lana partekatuz, hainbat bilera egin dira, kasu honetan, bide telematikoz. Ezarrita dagoen moduan, dokumentuaren behin betiko bertsioa CJN-NGK-k sinaduraren bidez berretsi

zuen, nolabait oniritzia emanez, bertan planteatutakoarekin ados zegoela adierazteko. Nafarroako Gazteriaren Kontseiluak, dokumentua sinatuz, ordezkatzeko dituen gazte elkartuen mugimendua du atzean. Era berean, dokumentua CJN-NGK-ko kide zen Gazte Parlamentuko ordezkariari aurkeztu zitzaion, sinatu aurretik.

Foru Estrategia oinarri moduan erabili da etorkizuneko 2021-2023 aldirako Gazteriaren III. Foru Planaren egitura ezartzeko.

Honako hauek izan dira proiektuaren hartzaileak:

- Nafarroan erroldatuta dauden 14-30 urte bitarteko gazteak.
- Gazteekin –taldeka zein banaka– lan egiten duten gazte elkarteak edo erakundeak, baldin eta Nafarroan erregistratuta badaude.
- Irabazi asmorik gabeko elkarte eta erakundeak, baldin eta beren estatutuetan xedea gazteei zuzendutako jarduerak egitea dela adierazten bada.
- Nafarroako Gazteriaren Kontseilua (CJN-NGK)

Prozesua maiatzetik azarora bitartean burutu zen, eta dokumentua 2020ko azaroaren 11n onetsi zen Gobernu Batzordean.

Dokumentua Nafarroako Gazteriaren Institutuak gazteentzat dituen zabalkunde taldeen bidez (Instagram, Facebook) helarazi zitzaion gazte elkartei (ehunetik gora elkartek jaso zuten). Nafarroako Gazteriaren Kontseiluak berak ere hedatu zuen bere kontaktuen artean. Nafarroako Gazteriaren Institutuaren webgunean argitaratu zen, baita Gobernu Irekiaren web atarian ere.

Estrategia beharrezko tresna da, Gazteriaren Plan berria oinarritzeko. Bertan, 2021-2023 aldirako Gazteriaren III. Foru Plana egituratu eta garatzeko ardatzei buruzko informazioa azaltzen da, ardatz horietako bakoitzean jorritako diren arlo edo esparruak adierazita; horiei lotuta, III. Planaren indarraldiko hiru urteetan gauzatuko diren ekintzak deskribatzen dira.

Esteka: <https://www.juventudnavarra.es/eu/gazteriaren-foru-estrategia-2020-2023>

✓ **Trantsiziorako plana Nafarroan - Normaltasunera bidean**



“Bi metro, ideia bat” lemapean espazio bat sortu zen Nafarroako Gobernuaren web atarian, deskonfinamenduari buruzko informazioa zabaltzeko, kontu emateko eta prozesu horretarako ekarpenak biltzeko, xedea izaki Trantsizio Batzordeari lagun egitea. Batzorde hori aldian-aldian bildu zen, eta normaltasun berrira iritsita, bere helburua bete zuela jo zuen. Txostena argitaratzearekin batera, partaidetza- eta ekarpen-prozesua itxi zen. Informazio guztia bere horretan utzi zen eta, pandemiaren bilakaeraren arabera, espazioa berriz ere irekitzea aztertuko da.

Hauek izan ziren normaltasun berri baterako trantsizio planaren oinarri diren gakoak:

- Ezartzea asimetrikoa lurraldean, herri bakoitzeko biztanleriaren eta epidemiologiaren errealitatearen arabera.
- Toki erakundeek estrategia ezartzen eta garatzen laguntzea eta parte hartzea.

- Planaren diseinua eta koordinazioa, departamentuen eta sektoreen artekoa.
- Gizarte zibilaren inplikazioa eta berrikuntza- eta sorkuntza gaitasunak, "Gure burua berrasmatzeko eta gizarte jarduerak berregiteko, horiek ez baitira berdinak izanen txertorik egon arte".

Deskonfinamendua Estatuan jarraituko zen estrategiaren markoan egitea aurreikusi zen, autonomia erkidegoekin koordinatuta eta nazioarteko ezagutzaren eta esperientziaren arabera.

Normaltasuneranzko prozesu honetan, bertako organo zuzentzaileek, Nafarroako Osasun Kontseiluak eta herritarrek izan zuten zeregin nagusia.

- Gunean, gainera, honako hauei buruzko informazioa zegoen:
 - Estatuak onartutako plana, haren adierazleak, faseak eta kronograma.
 - Normaltasun berrirako trantsiziorako emandako arauak eta jarraibideak.
 - Prozesuaren zuzendaritza organoak.

Esteka: <https://gobiernoabierto.navarra.es/eu/partaidetza/trantsiziorako-normaltasunera-bidean>

✓ **Emakume Politikarien Foroa**

Nafarroako Tokiko Erakundeetako Emakume Politikarien Foroa tokiko mailan aritzen diren emakume politikariei zuzendutako hausnarketa- eta ikaskuntza-gunea da; parte-hartzea sustatzeaz gain, Nafarroako emakume politikari, zinegotzi eta alkateei beren zeregin politikoak genero ikuspegitik gauzatzeko baliabide eta tresnak ematen dizkie, berdintasunerako politikak udalerrri mailan eta erabakiak hartzeko esparru guztietan bultzatuz.

2020koa programa finkatzeko urtea izan da. Foro iraunkorra sortu da, eta, urte osoan zehar, emakume politikariek lan egin da, banakako beharrei zein behar kolektiboek erantzuteko; horretarako, aurrez aurreko modalitatea eta modalitate birtuala konbinatu dira, Nafarroako 5 lurraldeetan: Tuteran, Pirinioak, Iruña eta Gares; guztira, alkate eta zinegotzi karguetan diharduten 83 emakumek hartu dute parte.

✓ **Ahalduntze indibidualerako eta kolektiborako programak**

Ahalduntze feministaren programa Emakume On ekimenak prozesu indibiduala eta kolektiboa burutzea du helburu nagusi, emakumeen parte-hartzea areagotzeko, prestakuntza eta jabetasun feministaren bidez; era berean, elkarrekin arteko sareak sortzea bultzatu nahi du, lan agenda komunak ezarri.

2020an, programa online modalitatera egokitu zen, COVID-19ak eragindako egoeraren ondorioz.

Programan guztira 146 emakumek hartu dute parte: Nafarroako lurralde osoko emakumeen 57 elkartetako ordezkari gisa, baita gizarte aldaketarekin eta feminismoarekin konpromisoa bere izenean hartua duten emakumeek ere.

Emakume gazteentzako ahalduntze feministaren programa: Taupada, Nafarroako Gazteriaren Institutuarekin elkarlanean, 14-25 urte bitarteko emakume gazteei zuzenduta dago; helburu nagusia Nafarroako emakume gazteen ahalduntze indibidualean eta kolektiboan eragitea da, espazio seguru eta konfiantzazkoa sortuz, iritzia eman, partekatu, esperimendu eta erabakiak hartu ahal izan ditzaten, epaitua izateko edo huts egiteko beldurrik gabe.

Programa Nafarroako hiru lurraldetan gauzatu zen: Iruña, Tuteran eta Elizondon. Iruñean izan zuen harrera bikainari esker, neska gazteen bi talde sortu ziren, guztira 59 parte-hartzaileekin.

LURRALDE ANTOLAMENDUKO, ETXEBIZITZAKO, PAISIAIKO ETA PROIEKTU ESTRATEGIKOETAKO DEPARTAMENTUA
✓ Nafarroako etxebizitza kolaboratiboari buruzko jardunaldia

Azaroaren 27an, etxebizitza kolaboratiboaren erduei eta Nafarroako egungo egoerari buruzko jardunaldia antolatu zuen Nafarroako Gobernuaren Etxebizitza Zuzendaritza Nagusiak; 96 pertsona bertaratu ziren.

José M^a Aierdik, Lurralde Antolamenduko kontseilariak, eta Eneko Larrartek, Nafarroako Gobernuko Etxebizitzako zuzendari nagusiak, ireki zuten saioa. Biek azpimarratu zuten etxebizitza mota horiei administrazio publikoen mailan erantzuna eman behar zaiela eta, zehazki, araudian, politika publikoetan eta abarretan beharrezko aldaketak eragiteko Nafarroako ekimenek topatzen dituzten oztopoak entzun behar direla.

Jardunaldiak hiru ataletan garatu zen, honako helburu hauek ezarrita:

1. Etxebizitza kolaboratiboaren kontzeptua zabaltzea eta ezagutaraztea.
2. Espainiako Estatuan aktibo dauden esperientzien prozesuetako batzuk erakustea.
3. Horrelako ekimenek Nafarroan izaten dituzten erraztasunak eta zailtasunak ezagutzera eta eztabaidatzea.

Esteka:

http://www.navarra.es/home_es/Temas/Vivienda/Ciudadanos/Actualidad/Jornada+de+difusion+sobre+modelos+de+vienda+colaborativa+y+situacion+actual+de+Navarra.htm

Grabatutako saioaren bideoa: <https://youtu.be/fSiYRsEu30k>

✓ Pirinioetako plana

Nafarroako Pirinioetako Plana 32 udalerrri eta dagozkien kontzejuak biltzen dituen eskualdean aplikatzen da; guztira, 1.414,9 km²-ko azaleran, hau da, Foru Komunitate osoaren % 14,7an. Pirinioak (Nafarroako Toki Administrazioaren Erreformatarako otsailaren 4ko 4/2019 Foru Legea), eta Orotz-Betelu eta Artziko udalerrriak.

Herritarren parte-hartzea funtsezkoa da, eta plan osoa egituratzeko ardatza. Pirinioetako Plana gizarte zibilak sustatu du ("5 minutu Pirinioentzat" izeneko ekimenaren bidez); Pirinioen eta Artzi eta Orotz-Betelu udalerrien despokatzearen gaiari heltzeko Nafarroako Parlamentuak 2016an bultzatu zuen Pirinioei buruzko berariazko hitzalditik abiatuta hasi da gauzatzen.

Pirinioetako Plana lurraldearen garapen iraunkorrerako plana da, eskualdea despokatzearen gaiari gobernantza eredu berri batetik heltzen diona.

Hain zuzen ere, "governantza" da planaren benetako berrikuntza eta indargunea, hau da, sortu eta gauzatzeko modua (ekimen soziala), baita gobernantza sistema ere (gobernu ereduak).

Bestalde, azpimarratu behar da ez dela azterketa ardatz nagusi duen plan bat, baizik eta proposamen bereziki praktikoa da, arreta ekintzan jartzen duena.

Planak sektoreko 4 mahaitan eta 11 lantaldetan antolatu diren 130 jardun proposamen biltzen ditu:

- Turismoa, merkataritza eta zerbitzuak.
- Industria, ekintzailtza eta Lurraldearen Garapen Iraunkorra.
- Abeltzaintza, nekazaritza eta basogintza.
- Etxebizitza, garraioa eta azpiegiturak.

Aipatuenez, GOBERNANTZA EREDUA da parte-hartzean oinarrituta dagoen plan horren berrikuntza nagusia. Hain zuzen ere, administrazioaren eragileek (Nafarroako Gobernua, toki erakundeak...), eragile sozialek eta ekonomikoek (Cederna Garalur, ekonomia sarea...), baita gizarte zibilak ere osatutako hainbat organo bateratzen dituen eredu berria da.

Kogobernantza sistemak prozesu aztertua ezartzen du lurraldean sortutako premiak eta proposamenak izapidetzeko; proiektuetan esku hartzen duten alde guztiek (toki entitate, elkarte, erakunde eta antolakundeek) prozesuko erabakiak hartzean ere parte hartzen dute.

Gauzatzeko onartutako ekimenen multzoa, azkenean, urtean behin prestatzen den eta Pirinioetako Planaren makineria osatzen duten pertsona, entitate eta antolakunde guztien lanaren emaitzak batzen dituen Ekintza Planean sartzen da.

Ondorioz, abian jartzen dira lantaldeetan sortzen diren eta ekonomia zein gizarte arlo desberdinetan eragina duten proiektu zehatzak, lurralde ikuspegitik, *bottom up* metodologia eta lurraldeko eragileen parte-hartze aktibo eta zuzena oinarri hartuta. "Pirinioekin, Pirinioetatik eta Pirinioentzat."

Plana ezartzeko, lurraldean oinarritzko lantalde bat eratu da, kalean bertan lan egiten duten 4 pertsonak osatua.

2020an abian jarritako proiektuetako batzuk:

- Nafarroako ekialdeko Pirinioetako adinekoen beharren eta bizi-kalitatea hobetzeko aukeren azterketa.
- Ekintzailtza gune bat martxan jartzea.
- *Coworking* espazioak Pirinioetan.
- Lehenengo sektoreari laguntzeko eta belaunaldi txandakatzeari buruzko jardunaldiak antolatzeke azterketa.
- Etxebizitza publikoari buruzko memoria baloratuak idaztea.
- Gazteentzako etxebizitzak birgaitzeko programa pilotua.
- Mugikortasun kolaboratiborako aplikazioa
- Unitate didaktiko baten diseinua.

Planaren 2020ko emaitzei dagokienez, 2020. urtea baino lehen 130 eskaera jaso ziren, eta guztira 23 eskaera azken urtean; eskaera horiei loturiko 6 proposamen, jarduketa edo konponbide gauzatu ziren, baita 11 proiektu/enkargu ere 2020an.

2020ko prozesuan zehar, guztira 171 parte-hartzaile izan ziren: 109 gizon eta 62 emakume.

Batzorde sektorialetan, lehen aipatutakoetan, 79 parte-hartze egin ziren, eta horietatik 15 Pirinioen Mahaiaren parte ere baziren.

Toki erakundeen kopurua:

- Ibarretako 3 batzorde
- Gizarte zerbitzuen 3 mankomunitate
- Hiri hondakin solidoen mankomunitate 1
- 6 udal

Gainera, parte hartu dute:

- Osasun etxe 1
- Enpresa publiko 1
- 3 ikastetxe
- Farmazia 1

Elkarteak:

- Turismoko 3 elkarte
- 4 elkarte, kulturakoak edo bestelakoak
- Emakumeen 2 elkarte
- 3 turismo informazio bulego

Hainbat foro ireki ere antolatu dira, baita beste bilera eta elkarrizketa batzuk ere.

Esteka: <https://www.gupirinioa.eus/eu>

✓ **Nafarroa Ezagutu Sareko naturagune eta ibilbideak COVID-19aren aurrean**

Proiektu horren helburua osasun krisiaren aurrean sare gisa kohesioa lortzea eta espazioak zein ibilbideak COVID-19a egokitzea.

Parte hartzeko prozesua hiru fasetan garatu da:

I. fasea: Konfinamendu aldia (apirila): lehenengo saioa online egin zen, Nafarroa Ezagutu Sareko espazio eta ibilbideen kide kudeatzaile guztiekin batera; bertan hitz egin da bizi ari garen egoera kritikoaz eta naturagune horiek espazio seguru bihurtzeko moduz, konfinamendua amaitu ondoren bisitariak joateko aukera izan dezaten. Lehenengo saio hori lehen harremana izan da birusa dela eta naturaguneen ahulguneak eta behar izanen dituzten baliabideak identifikatzeko.

Saioaren amaieran iritziak bildu dira, eta benetako beharrak adierazteko galdetegiak bidaliko direla erabaki da.

II. fasea: Deskonfinamendua (maiatza): egoera aldatu egin da, eta horren arabera moldatu beharko dugu, jarraibide sanitarioak aldatu ahala. Bi lantalde identifikatu dira: naturaguneak eta ibilbideen sarea. Espazioak egokitzeko eta segurtasuna bermatzeko konponbide onenak bilatzen ari dira, gertatzen diren aldaketek baldintzatuta.

III. fasea: Lantaldeetan eta galdetegien bidez lortutako emaitzak biltzea. Honako emaitza hauek lortu dira, beharrezko baliabideei dagokienez:

- Bisitari kopurua kontrolatzeko tresna
- Ingurune naturaleko esparru eta ekipamenduak desinfektatzeari buruzko prestakuntza
- Espazioak seguruak eta erakargarriak direla eta egoera berrira egokituta daudela jakinaraztea, eskaintzaren berri emateaz gain
- Garbiketako langileak eta ingurune naturaleko langile profil berria, ingurune naturaleko erabiltzaileen jokabide berriei buruzko informazioa ematen duena eta ingurune naturalarekiko eta tokiko biztanleriarekiko errespetua sustatzen duena

IV. fasea: Espazioak ireki ondoren jarritako baliabideen emaitzak biltzea. Balorazioa.

Proiektu Estrategikoen Zuzendaritza Nagusia eta Lursarea izan dira proiektuaren sustatzaileak; eta hartzaileak Nafarroa Ezagutu Sareko naturaguneen, bide berdeen eta ibilbideen kudeatzaileak.

Prozesua apirilean hasi eta 2020ko irailean amaitu zen, eta 20 naturagunek hartu zuten parte.

Orain, Nafarroa Ezagutu Sareko naturaguneek badaukate bisitari kopurua kontrolatzeko tresna bat (erreserbak online egiteko gunea). Nafarroako Enplegu Zerbitzuarekin koordinaturik, ekipamenduen eta naturaguneen desinfekzioari buruzko bi ikastaro antolatu ziren, online modalitatean, bi mailatan, eta ingurune bat-bateko interpretazioarekin. Iraunkortasunari buruzko 4 proiektu pilotu abiarazi ziren 9 naturagunetan eta ibilbideen 2 saretan; lanbide profil berri moduan, iraunkortasun agenteak sortu ziren, bai baliabide naturalaren, bai bere inguruaren

iraunkortasuna sustatzeko, osasun, gizarte edo ekonomia arloko beste mehatxu baten aurrean erresistenteagoa izan dadin.

Beste ondorio bat Nafarroa Ezagutu Sareko espazio eta ibilbideetan inbertsioak egiteko dirulaguntzen deialdia izan zen, bereziki, COVID-19a dela eta espazioak egokitzea helburu duena.

Esteka: <https://redexploravarra.es/eu/nafarroa-ezagutu-sarea/>

✓ “Hirigintza COVID garaian: espazio publikoak bizi eta eraldatu” topaketa

Topaketa gogoeta gune gisa aurkezten da espazio publikoen kalitateaz, gure herri eta hirien diseinuaz arduratzen diren eta gai horietan interesatuta dauden pertsonentzat.

Topaketa horren bidez, profesionalen eta akademikoen, administrazio publikoen, alkateen eta herritarren kolektibo eta ekimenen ezagutzak bildu nahi dira, bizipenetik, aztertzetik eta/edo esperientziatik abiatuta ekarpenak egiteko gune inklusiboak izanik. Alegia, hiri, herri eta lurralde jasangarriagoetara eta zaintzaileagoetara eramanen gaituzten aukerak ikusarazteko eta aztertzeke topaketa.

Arkitektura, hirigintza eta plangintzarekin lotura duten esparru sozial, administratibo eta profesionalek espazio publikoen garrantziari buruz hausnartzeko abagunea da, espazio publiko horiek honela ulertuta:

- Ingurune bizidunak eta bizigarriak, erabilera desberdinak hartzeko eta premia desberdinetara egokitu ahal direnak.
- Berdintasunerako lekuak, kohesiorakoak, eta pertsona guztientzat irisgarriak.
- Herrien eta hirien eta horiek inguratzen dituzten ingurunearen arteko harremanak sendotuko dituzten espazioak, natura eraikitako espazioan integratuz.

Topaketaren helburuak honako hauek izan ziren:

- Espazio publikoek, herri eta hiriek eskakizun desberdinetara egokitzeko izan behar duten ahalmenaz hausnartzea.
- Taldeko hausnarketa egiteko gune bat sortzea, sektore anitzeko ikuspuntuak batuz.
- Topaketaren gaiei lotutako arazo, esperientzia eta ekimenak agerian jartzea.
- Proposamen, ideia, lan-ildoak elkarlanean diseinatzeko gunea sortzea, hirigintza, hiri diseinua eta etxebizitza –espazio libreei loturik– abiapuntu hartuta, hiri mendiko eremuan 2030 Agendarekin bat etorriko diren hiri eta herri iraunkorrago, erresiliente eta zaintzaileagoetarantzko bidean aurrera egiteko.

Topaketaren programa bi jardunalditan antolatu zen, Tafallan eta Artaxoan, non hainbat jarduera burutu ziren:

- **Hiri-kontakizunak:** hirien eta herrien eraikuntza jasangarri hainbat esparrutatik nola ari diren lanean erakusten duten ekimenen aurkezpen laburrak.
- **Hitzaldiak:** ezagutza partekatu, zabalkundea egin eta hirigintzan adituak direnekin hitz egiteko gunea.
- **Batera diseinatzeko lantegia:** talde lanerako gunea, non arlo desberdinetako lanbide profilek (akademikoak, administrazioa, profesionalak, alkateak, kolektiboak) parte hartzen duten.
- **Bestelako begiradak:** hirigintzara eta espazio publikora hurbiltzea, Artaxoan barrenako ibilbide eta errezitaldi baten bidez; formatua aldatu egin behar zen, orduko osasun egoeraren ondorioz.

Topaketa profesionalei, administrazioei eta toki erakundeei zuzenduta zegoen, baita herritarrei eta hirigintzarekin lotutako kolektiboek ere, eta jardunaldiak irailaren 17an eta 18an burutu ziren, honako datu hauekin:

- Ekimenen deialdia: 12 proposamen aurkeztu ziren
- Hiri-kontakizunak: aurrez aurre: 35 pertsona, online: 237 pertsona
- Hitzaldiak: aurrez aurre: 33 pertsona, online: 145 pertsona
- Batera diseinatzeko lantegia: aurrez aurre: 24 pertsona
- Bestelako begiradak: Ibilbidea eta errezitala Artaxoan. Aurrez aurre: 6 pertsona; osasun murrizketak zirela medio, webgunean dagoen grabaketa bat egin zen. Ibilbidea: 66 aldiz ikusi da. Errezitala: 121 aldiz ikusi da

Egindako jarduerak eta hausnarketen laburpena –goitibehera irekitzen den poster formatuan– jasotzen dituen argitalpen bat osatu da (250 ale gaztelaniaz eta 100 ale euskaraz, horren berri zabaltzeko).

Esteka: <https://www.navarra.es/eu/web/encuentrosurbanismo2020/hasiera>

✓ **“Jurramendiko paisaia berezia” izeneko ekintzan parte hartzea**

Ekintza horren esparruak hamaika udal mugarte eta bi elkarrekiko biltzen ditu:

- Udal mugarteak: Aberin, Arellano, Aiegi, Barbarin, Deikaztelu, Lizarra, Iguzkitza, Lukin, Morentin eta Villamayor de Monjardín.
- Elkarrekikoak: 29. elkarrekikoa, Aranbeltz; eta 67. elkarrekikoa, Jurramendi

Parte-hartze prozesua Jurramendiko Paisaia Bereziaren Plan Bateratua izapidetu aurretik burutu da; izan ere, Erdialdeko Eremuetako Lurraldearen Antolamenduko Planean babes bereziko eremutat hartu zen paisaia era bateratuan eta orohartzailean babestu, kudeatu eta ordenatzea da planaren helburua.

Prozesuaren xedeak hauek izan dira:

- Inguruko herrientzat identifikazio ikurra den Jurramendiren balioa nabarmentzeko proiektuaren berri modu dibulгатiboan ematea.
- Paisaiari buruzko ikuspuntu soziala aztertzea, berarekin identifikatzen diren biztanleek paisaia horri buruz zer uste duten galdetuz.
- Jurramendiko paisaiaren inguruko ikuspegi desberdinak barnean hartzea.
- Lurralde Antolamenduko, Etxebizitzako, Paisaiako eta Proiektu Estrategikoetako Departamentuak eta zerikusia duten udalek sinatu duten hirigintza arloko lankidetzarako hitzarmenari erantzuna ematea.
- Paisaia Bereziaren Plan Bateratua parte-hartze prozesuan bildutako ekarpenekin aberastea.
- Parte-hartzeari, lurraldeari eta hirigintzari buruzko legedia betetzea.

Parte-hartze prozesua dagokion Parte-hartzerako Planean diseinatu zen. Parte hartzeko ekintza hauek osatu dute prozesua:

- Mapaketa, zabalkundea eta deialdia.
- Jarraipen Batzordearen aurrean aurkezteko saioa; batzordea toki erakundeen ordezkariak osatu dute, eta Lurralde Antolamenduko, Etxebizitzako, Paisaiako eta Proiektu Estrategikoetako Departamentua horren buru izan da (2020-08-06).
- Funtsezko eragileak identifikatzea.

- Partaidetza irekiko saio telematikoa, lurraldeko eragileei eta herritar guztiei zuzendua (2020-09-29).
- Parte hartzeko webgunea, non proiektuari eta parte hartzeko prozesuari buruzko informazioa, dokumentu garrantzitsuak, saio telematikoan izena emateko formularioa eta ekarpenak egiteko galdetegia aurkitu ahal diren.
- Funtsezko eragileei telefono bidezko kontsultak egitea.
- Itzulera informazioa jasotzeko saio telematikoa, lurraldeko eragileei eta herritar guztiei zuzendua (2020-12-21).

Prozesua 2020ko abuztutik abendura bitartean burutu zen, eta 29 pertsonak hartu zuten parte.

Esteka: <https://paisaje.navarra.es/pages/pp-montejurra>

✓ Iruñeko eta inguruko udalerrietako Azpiegitura Berdea

Gaiarekin zerikusia duen lurralde eremua Iruñeko arro fisiografikoari, Iruña hiriri eta metropolialdeari dagokie; espazioaren erdigunea hartzen du, hau da, kubetaren hondoa hartzen du barnean eta inguruko mendietako isurialdeen banalerroraino igotzen da (banalerroarekin zuzeneko lotura duten mendiak dira).

Esparrua osorik edo zati batean ukituta dauden 30 udalerrik osatzen dute: Antsoain, Aranguren, Barañain, Beriain, Berriobeiti, Berriozar, Bidaurreta, Burlata, Oltza Zendea, Ziritza, Zizur, Etxarri, Esteribar, Etxauri, Ezkabarte, Galar, Gesalatz, Uharte, Iza, Txulapain, Monreal, Noain (Elortzibar), Orkoien, Iruña, Tebas-Muru Artederreta, Eguesibar, Ollaran, Atarrabia, Zabaltza eta Zizur Nagusia.

Iruñeko eta inguruko udalerrietako Azpiegitura Berdeari buruzko dokumentu tekniko bat adostu eta egitea helburu duen prozesua, parte hartzekoa.

Prozesua hainbat fasetan antolatu da, planifikazio lana atzeraelikatzen du, sortutako informazioa modu irisgarri eta ulergarrian eskura jartzeko balio du, harremanak sortzea eta kontsultak egitea ahalbidetzen ditu, eta parte hartzeko aukera ematen du.

Honako fase hauen eta parte hartzeko ekintza hauen bidez garatu da:

- Diseinu fasea: parte-hartze plana idaztea
- Diagnostiko fasea:
 - Eragileen mapa
 - Aurrez aurreko irekiera saioa (2019-11-14)
 - Aurrez aurreko galdetegia
 - Web inkesta
- Eztabaida fasea:
 - Elkarrizketak eremuko toki erakundeen ordezkariekin
- Konparaketa fasea:
 - Aurrez aurreko saioa, baita telematikoa ere (2020-07-22)
 - Web galdetegia
- Itzulera fasea:
 - Saio telematikoa (2020-12-18)

Prozesuan 100 pertsonak hartu dute parte; azpimarratu behar da partaidetzaren eta lankidetzaren maila handia, lortutako emaitza onak jasotako ekarpenei dagokienez, baita erakutsitako interesa ere, batez ere toki erakundeen aldetik.

Esteka: https://www.nasuvinsa.es/es/informacion-util/planificacion_territorial_inf_verde

✓ **Ebroko Ardatzaren Lurralde Antolamenduko Planaren (POT 5) esparruari dagokion paisaiari buruzko dokumentua**

Lurralde Antolamenduko, Etxebizitzako, Paisaiako eta Proiektu Estrategikoetako Departamentuak (Landa Garapen, Ingurumen eta Toki Administrazioako Departamentua, kontratatu zenean), Paisaiaren Europako Hitzarmena eta Ebroko Ardatzaren Lurralde Antolamenduko Plana (POT 5) aplikaturik eta haiek garatzeko, lan tekniko objektibo eta zorrotzari ekin dio eta garatu du, herritarren, eragileen eta toki erakundeetako ordezkarien iritzia, lurraldeko ondareari buruzkoa (landa eta hiri ondarea, egunerokoa, ohiz kanpokoa, narriatua,...), baita ondare/paisaia horien inguruko asmoak ere ezagutzeko.

Parte hartzeko 5 saio egin dira: 2 saio proiektua aurkezteko, eta 3 eztabaida saio. Partaidetza taula hauetan jaso da:

Parte hartzaileen kopurua aurkezpen saioetan	Gizonak	Emakumeak	Guztira
Sozietate publikoak	1	2	3
Toki erakundeak	12	9	21
Guztira	13	11	24

Parte hartzaileen kopurua eztabaida saioetan	Gizonak	Emakumeak	Guztira
Gobernuko departamentuak	2	4	6
Sozietate publikoak	3	5	8
Toki erakundeak	15	11	26
GKEak eta herritarren elkarteak	1	1	2
Enpresa pribatuak	4	1	5
Beste kanpo-eragile batzuk	13	5	18
Guztira	38	27	65

Prestatutako behin betiko dokumentua irekia da, jarraituko da lantzen eta biztanleriarekin egiten ari den lanaren zein lan teknikoaren emaitzak gehitzen.

Esteka:

<https://paisaje.navarra.es/search?collection=Document&q=pot%205&tags=documentos%20de%20paisaje%20pot5>

✓ **Despopulatzeari buruzko azterketa: “Estellerriko Jurramendi Azpieskualdean eta Zangoza eta Erdialdeko eskualdeetan biztanleak kokatzen laguntzeko ekintza lerro, proiektu eta baliabideak identifikatzea”**

Proiektuaren lurralde-eremua:

- Jurramendiko azpieskualdea, Estellerriko eskualdean: 55 udalerrri. 31.507 biztanle (Estatistikako Institutu Nazionala, 2018)
- Zangozako Eskualdea: 16 udalerrri. 9.460 biztanle (Estatistikako Institutu Nazionala, 2018)
- Erdialdeko Eskualdea: 19 udalerrri, 26.073 biztanle (Estatistikako Institutu Nazionala, 2018)

Proiektuaren helburua Nafarroako Gobernuak –aipatu eskualdeen despopulazio joera aldatzeko– ezarri, garatu eta/edo aldatu behar dituen politika, plan, programa eta/edo lan-ildoak identifikatzea da, honako berariazko helburu hauek ezarrita:

- Herriak abandonatzeko arrazoi eta kausak identifikatzea.
- Biztanleria finkatzen lagundu duten eta aukera izan daitezkeen ekimen, proiektu eta baliabideak identifikatzea.
- Jendea herrietan bizi eta lan egiteko zailtasunak eta eragozpenak identifikatzea.
- Biztanleria finkatzen laguntzeko ekintza zehatzak definitzea.

Toki erakundeak, ekonomian eta gizartean parte hartzen dutenak, elkarteak, gazteak eta, oro har, herritarrak izan dira proiektuaren hartzaileak; proiektua 2019ko ekainetik 2020ko urtarrilera bitartean burutu zen, honako partaidetza honekin:

Zangozako eta Erdialdeko eskualdeetan: 420 pertsona inguru.

- **47 elkarrizketa sakon**, toki erakundeak, ekonomian eta gizartean parte hartzen dutenak, elkarteak. 63 pertsonak parte hartu zuten.
- **8 mintegi, DBHko 4. mailako gazteekin:** 165 parte hartzaile. 3 saio Zangozako BHIn: 66 parte-hartzaile, eta 5 saio Tafallako BHIn egindako 3 jardunalditan: 99 parte-hartzaile
- **4 mintegi lurraldean**, 2 eremu bakoitzean, guztira 98 parte-hartzaile (% 54 emakumeak). Pitillas eta Zangoza: elkarteei eta herritar guztiei zuzenduak. 33 parte-hartzaile mintegi bakoitzean. Ledea eta Olite: udalak eta ekonomiako eragileak, 15 eta 17 parte-hartzaile, hurrenez hurren.
- **2 itzulera-saio:** Zangozako eta Tafallako kultur etxeak; guztira, 95 parte-hartzaile.

Jurramendiko azpieskualdean: 200 pertsona inguru.

- **25 elkarrizketa sakon:** udalak, eragile ekonomiko publiko eta pribatuak, elkarteak; 50 parte-hartzaile.
- **Foroak / guneko taldea:** guztira 30 parte-hartzaile, Ameskoabarrena, Aranaratxe, Eulate, Larraona, Lukin, Barbarin, Iguzkitza, Villamayor de Monjardín, eta Gesalatzetik etorritakoak.
- **Mintegiak Batxilergoko 2. mailako gazteekin:** 2 saio, Lizarrako BHIn; 46 parte-hartzaile.
- **Parte hartzeko foroak**, Lizarran, Los Arcosen eta Aritzalan (Deierri); 52 pertsonak hartu dute parte.
- **Itzulera saioa:** Lizarrako kultur etxean; 28 parte-hartzaile.

Laguntza teknikoko bi taldek (bata Jurramendiko azpieskualdean eta bestea Zangozako eta Erdialdeko eskualdeetan) dokumentu edo txosten bana prestatu dute, azterketa, diagnostikoa eta jarduketa ildoen proposamenak jasotzeko.

Parte hartzeko ekintzen emaitzak (elkarrizketak, mintegiak, foroak) lana osatzeko elementu moduan gehitu dira, balizko ekintza-ildoak zehaztean, eta partaidetzari buruzko dosierrean jasota daude, non azaltzen baitira metodologiak, tresnak, parte-hartzaileak eta partaidetzaren emaitzak, ekarpen adierazgarrienak laburtuta.

Txosten horiek Nafarroako Parlamentuak 2020ko otsailean antolatu zuen Despopulatzeari buruzko Jardunaldian aurkeztu zituzten lantaldeek.

Esteka: lantzen ari da.

MIGRAZIO POLITIKETAKO ETA JUSTIZIAKO DEPARTAMENTUA

✓ Pertsona Migratzaileen Foroa

Nafarroako Gobernuko Migrazio Politiketako eta Justiziako Departamentuak funtsezkotzat eta ezinbestekotzat jotzen du pertsona migratzaileek aukera izatea parte hartzeko eta erabakiak hartzeko migrazioaren arloko politika publikoetan, honako gai hauek barne: pertsona migratzaileen eta errefuxiatuen harrera eta laguntza ematea, kulturen arteko bizikidetzaren hobetzea eta arrazakeriaren aurka egitea.



Foroa Nafarroako biztanleria migratzailearen ordezkari askok osatu behar dute, eta helburuak hauek dira:

- Nafarroako biztanle migratzaileei migrazio arloko politika publikoen berri ematea.
- Migrazio Politiketako Zuzendaritza Nagusian prestatzen diren plan, protokolo edo estrategiak aurkeztu eta eztabaidatzea.
- Pertsona migratzaileen elkarteei zuzendutako dirulaguntzen deialdiarako oinarriak aurkeztea eta ekarpenak jasotzea.
- Migrazio Politiketako Zuzendaritza Nagusiaren lan-esparruetako eskaerak aurkeztu eta eztabaidatzea, biztanleria migratzailearen aldetik.
- Harrera, laguntza, inklusioa, bizikidetzaren aurkako borroka bezalako gaiak buruz hausnartzeko, elkar ezagutzeko eta eztabaidatzeko guneak sortzea.

LANERAKO METODOLOGIA

1. Pertsona Migratzaileen Foroaren Osoko Bilerak

Osoko Bilerak ordezkari- eta eztabaida-organo gorenak dira, eta bere osakeria aurreko puntuan zehaztu da.

Osoko Bilerak urtean bi aldiz egingen dira gutxienez, eta helburuetan zehaztu diren zereginak izan behar dituzte.

2. Gaikako eztabaida taldeak

Osoko Bileraren proposamenak, plan, protokolo eta jardun estrategiei loturiko gaikako eztabaida taldeak sortu dira.

Migrazio Politiketako Zuzendaritza Nagusiak proposamenak aurkeztu ditu, talde bakoitzak nola funtzionatu behar duen erabakitzeko, lurraldetasuna eta parekotasuna kontuan hartuta; proposamen horiek kideek onartu behar dituzte.

3. Eztabaidarako, hausnarketarako eta elkar ezagutzeko guneak

Publiko orokorrari irekita dauden bi gune antolatzen dira urtean behin, Osoko Bileran onartutako gaiak joratzeko.

*Oharra: bai topaketan kronogramak, bai programa, aldatu egin dira 2020an, osasun egoeraren ondorioz.

Foroa egun hauetan antolatu da:

- Talde osoko bilerak
 - Iruñea: 2020/01/29, 2020/03/05 eta 2020/09/29

- Tuterako: 2020/02/27 eta 2020/12/01
- Foroaren eztabaida mahaiak:
 - Bizikidetzako: 2020/05/12 eta 2020/06/16 (telematikoak)
 - Harrera: 2020/05/13 eta 2020/06/17 (telematikoak)
 - Eskubideak: 2020/05/14 eta 2020/06/18

2020. urtean, pertsona migratzaileen 67 elkarter hartu zuten parte (Iruña aldeko 48 elkarte eta Tuterako aldeko 19 elkarte), baita partikularrek ere, honako emaitza hauekin:

BIZIKIDETZAREN arloan, 15 ekarpen jaso dira.

HARRERAREN arloan, 9 ekarpen jaso dira.

ESKUBIDEEN arloan, 35 ekarpen jaso dira.

Esteka: <https://www.navarra.es/eu/albisteak/2020/01/29/migratzaileen-foroa-eratu-da-politika-publikoetan-parte-hartzeko-espazio-gisa>

HERRITARREKIKO HARREMANETAKO DEPARTAMENTUA

✓ Itzulera Plana egiteko azterketa

Azterketa Kanpo Ekintzarako Zuzendaritza Nagusiaren mendeko Eskualdeen arteko Lankidetzaren eta Kanpoko Herritarren Zerbitzuak egin du, bi helburu hauekin:

- Nafarroara itzultzeko plan bat burutzeko jar daitezkeen baliabideak identifikatzea
- Pertsona migratzaileek eta emigratzaile izan daitezkeenek Nafarroari buruz daukaten iritzia ezagutzea
- Itzultzeko borondate maila eta oztopo nagusiak ezagutzea
- Emigratzeko borondate maila eta arrazoiak ezagutzea
- Enplegatzaile potentzialen iritzia ezagutzea
- Proposamenak biltzea

2020ko irailaren 30etik abendura bitartean, honako inkesta eta aurrez aurreko saio hauek egin dira:

- Emigratzeko asmoz dabiltzan 341 pertsonak bete dute "Nafarroan bizi zara eta beste lurralde batera edo atzerrira joateko asmoa duzu?" inkesta.
- 150 emigrantek bete dute "Nafarroatik kanpo bizi zara eta itzuli nahi duzu?" inkesta.
- Nafarroara itzuli diren 22 pertsonak bete dute "Nafarroara itzultzeari buruzko inkesta".
- 12 enpresak bete dute "Nafarroako enpresentzako inkesta".
- Banako 24 elkarrizketa: horietatik 3 balizko emigranteei egin zaizkie; 7 emigranteei, 9 itzuli direnei (horietako 4 ikertzaileak izan dira); 4 enpresei egin zaizkie, eta elkarrizketa bat Aragoiko Gazte Talentua Itzultzeko Planaren Koordinatzaileari.
- 9 bilera, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioako departamentuekin.
- 2 bilera Nafarroako unibertsitateekin.

Inkesta eta bilera horien bidez, diagnostiko azterketa bat eta ekintza proposamen bat prestatzeko behar den informazio kualitatiboa eta kuantitatiboa jaso da.

Esteka: <https://next.navarra.es/eu/hasiera>

GARAPEN EKONOMIKO ETA ENPRESARIALEKO DEPARTAMENTUA✓ **Sentsibilizazio jardunaldiak**

2020. urtean zehar, Trantsizio Energetikoaren Zerbitzuak (DEE) honako sentsibilizazio jardunaldi hauek antolatu ditu:

- 2020/11/03. "Ezagutu zure tarifa elektrikoak" izenburuko jardunaldia, elektrizitatearen fakturako ezaugarrien inguruan sentsibilizatzea helburu duena; 35 pertsonak hartu dute parte.
- 2020/11/04. "Autokontsumo kolektibotik Erkidego Energetikoetara" izenburuko jardunaldia, autokontsumoko erkidego energetikoetan parte hartzeko aukeraren inguruan sentsibilizatzea helburu duena; 38 pertsonak hartu dute parte.
- 2020/11/05. "Argiaren fakturaren bost amarru" izenburuko jardunaldia, argiaren fakturan aurrezteko moduz sentsibilizatzea helburu duena; 37 pertsonak hartu dute parte.
- 2020/11/09. "Ulertu zure faktura elektrikoa" izenburuko jardunaldia, elektrizitatearen fakturako osagaien inguruan sentsibilizatzea helburu duena; 37 pertsonak hartu dute parte.
- 2020/11/10. "Nola eraiki energia erkidego bat" izenburuko jardunaldia, energia erkidego bat sortzeko aukeraren inguruan sentsibilizatzea helburu duena; 59 pertsonak hartu dute parte.
- 2020/11/11. "Energia erkidegoak, errealitatea eta adibide batzuk", izenburuko jardunaldia, benetako energia-erkidegoen inguruan sentsibilizatzea eta adibide batzuk jartzea helburu duena; 60 pertsonak hartu dute parte.
- 2020/12/11. "Etxeko efizientzia, nola murriztu zure kontsumoa" izenburuko jardunaldia, etxeko energiaren kontsumoa murrizteaz sentsibilizatzea helburu duena; 39 pertsonak hartu dute parte.
- 2020/16/11. "Energia pobretasuna, ikusezintasunetik onartzera eta ahalduntzera" izenburuko jardunaldia, energia pobretasunaz (ikusezintasunetik hasita, ahalduntzeraino) sentsibilizatzea helburu duena; 24 pertsonak hartu dute parte.
- 2020/11/17. "Etxean aurrezte, efizientzia eta segurtasuna" izenburuko jardunaldia, segurtasunaren, efizientiaren eta energia aurreztearen inguruan sentsibilizatzea helburu duena; 22 pertsonak hartu dute parte.
- 2020/18/11. "Autokontsumoko soberakinen konpentsazioa" izenburuko jardunaldia, autokontsumoan sortzen diren energia soberakinak konpentsatzeko moduz sentsibilizatzea helburu duena; 32 pertsonak hartu dute parte.
- 2020/11/19. "Autokontsumo kolektiboa jabe kideen erkidegoetan" izenburuko jardunaldia, energia autokontsumorako instalazioak jartzeko aukeraz sentsibilizatzea helburu duena; 35 pertsonak hartu dute parte.
- 2020/11/23. "Aurreztu energia etxean" izenburuko jardunaldia, etxean energia aurrezteko aukera desberdinen inguruan sentsibilizatzea helburu duena; 27 pertsonak hartu dute parte.
- 2020/11/24. "Mugikortasun elektrikoa, modu anitzekoa eta iraunkorra" izenburuko jardunaldia, mugikortasun elektrikoa, modu anitzekoa eta iraunkorra erabiltzeko aukeren inguruan sentsibilizatzea helburu duena; 20 pertsonak hartu dute parte.
- 2020/11/25. Mugikortasun iraunkorra: esperientzia bizikleta elektrikoarekin; 21 pertsonak hartu dute parte.
- 2020/11/26. Mugikortasun iraunkorra: esperientzia ibilgailu elektrikoarekin; 22 pertsonak hartu dute parte.

Esteka: https://www.navarra.es/documents/48192/5554420/03112020_calendario_jornadas_energia.pdf/860d75e6-ac59-e553-9c07-9901642259b9?t=1604389277731

1.2. Gobernu Irekiaren eta Herritarrentzako Arretaren Zerbitzuak burututako bestelako jarduerak

1.2.1. Nafarroako Gobernuaren jarduketak

1.2.1.1. Herritarren partaidetzarako unitateak sortzea

Nafarroako Parte-hartze Demokratikoari buruzko martxoaren 22ko 12/2019 Foru Legeak ezartzen duenez, "Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren departamentuek, nork bere antolaketarako foru dekretuan, herritarren parte-hartzearen arduraduna izanen den administrazio unitatea edo organoa izendatu edo eratu beharko dute". Departamentu bakoitzak arduradunak izendatu ditu, partaidetzarako unitate gisa.

1.2.1.2. Departamentuei laguntza eta aholkularitza ematea

2020. urtean, jarraitu egin da departamentuei laguntza eta aholkularitza ematen, intentsitate handiago edo txikiagorekin, beren plan, programa eta estrategien markoan parte hartzeko prozesuak abiaraz ditzaten; arduradunekin harremanetan egon da, honako gai hauei dagokienez:

Departamentua	Erakundea	Plana, programa
Lehendakaritza, Berdintasuna, Funtzio Publikoa eta Barne Gaiak		Nafarroa Suspertu Plana
	Nafarroako Kirolaren eta Gazteriaren Institutua	III. Gazteria Plana
Herritarrekiko Harremanak		Bizikidetza Plana
	Euskarabidea	Next Estrategia III. Euskara Plana
Landa Garapena eta Ingurumena		Klima Aldaketaren Legea
Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko Departamentua		Medikuntza Pertsonalizatuaren Estrategia

Departamentua	Erakundea	Plana, programa
Eskubide Sozialak		Haur eta nerabeentzako laguntza eta babesari buruzko Foru Legea

✓ **Bilerak Nafarroako Gobernuko zuzendaritza nagusiekin**

Nafarroako Gobernuko zuzendaritza nagusiekin bilerak planifikatu ziren, Gobernu Irekiaren taldeari gardentasunaren eta herritarren partaidetzaren arloko lankidetzak ildoak aurkeztu, ezagutzen saiatu eta ezartzeko.

Martxoan bilerak bertan behera utzi behar izan ziren pandemiaren ondorioz, baina honako topaketa hauek gutxienez egin ahal izan ziren:

Zuzendaritza Nagusia	Eguna
Migrazio Politiketako Zuzendaritza	2020/02/18
Nafarroako Gazteriaren Institutua	2020/02/18
Hezkuntzaren Zuzendaritza Nagusia	2020/02/27
Nafarroako Estatistika Institutua	2020/3/4
Errealitate Sozialaren Behatokia	2020/3/4
Euskarabidea	2020/03/12

✓ **Haur eta nerabeentzako laguntza eta babesari buruzko Foru Legea – Gizarte Eskubideak**

Haur eta nerabeen parte-hartzeari dagokionez, Gizarte Eskubideen Departamentuarekin batera egindako lana nabarmentzekoa da; xehetasun handiagoz azaltzen da toki erakundeekiko harremanei buruzko atalean.

Gizarte Eskubideen Departamentuarekin batera egindako lana Haur eta nerabeentzako laguntza eta babesari buruzko Foru Lege berriaren proiektua idaztea izan da, hain zuzen, adingabeen eta familien parte-hartzeari buruzko zatia.

Aipatu departamentuak departamentu arteko parte hartzeko prozesua abiarazi zuen, berarekin lan egin ohi duten sektoreko erakunde garrantzitsuenekin, baina beharrezkotzat jo zuen oso talde garrantzitsuari hitza ematea, legearen xedea izan arren prozesuaren bidez talde horri heldu ez zitzaielako; hori dela eta, zati hori idazteko laguntza Herritarren Partaidetzarako Atalari eskatu zioten.

Lanaren helburua ulertu ondoren, aztertu zen, batetik, zein metodologia erabili, eta, bestetik, partaidetza saioak egin ahal zituzten enpresak, haurren parte-hartzean espezializatuta zeuden eta, gainera, adingabeak babesteko sistemak prestakuntza zuten enpresak izan behar zirela kontuan hartuta. Ondorioztatu zen ezer baino lehen laneko dokumentazioa diseinatu behar zela, adingabeen beharretara egokitutakoa, baina baita familiekin lan egiteko ere balioko duena. Bestaldetik, Eskubide Sozialak Departamentuak legearen zirriborroa idazteko izan zuen epea

zela eta, bi talde kontratatzeko erabakia hartu zen, aurrez aurreko partaidetza saioak egiteko: bata adingabeentzat, eta bestea familientzat.

Prozesuko metodologia eta xede taldea planteatu ondoren, egin beharreko saioak definitzeko lana egin zen; horretarako, adingabeen arloan, saioak hiru ataletan banatzea proposatu zen: eskola ingurunea, adingabeekin lan egiten duten erakundeak eta adingabeak babesteko sistema. Familien kasuan honako atal hauek bereizi dira: Ikastetxeetako gurasoen elkarteak, famili gaiekin zerikusia duten erakundeak eta adingabeak babesteko sistemaren inguruneke familiakoak.

1.2.1.3. **Gobernuko departamentuei zuzendutako prestakuntza- eta sentsibilizazio-ekintzak garatzea**

Atal honetan bi ekintza egin ziren:

✓ **Gobernu Irekiaren I. Mintegia**

2020ko otsailaren 21ean, Nafarroako Errege Artxibo Nagusiko aretoan, "Gobernu Irekiari eta Administrazio Publikoari buruzko lantegia" antolatu zen, Nafarroako Gobernuko Administrazioari, hau da, honako hauei zuzendua: kabinete buruak, zuzendari nagusiak, idazkari tekniko nagusiak, erakunde autonomoetako zuzendari nagusiak, sozietate publiko eta fundazio publikoetako kudeatzaileak.

Mintegiaren helburuak honako hauek izan ziren:

- Kontuak emanen dituzten erakunde eraginkorrak eta gardenak sortzea, eta bermatzea herritarren beharrei erantzunen dieten erabaki inklusiboak, parte-hartzaileak eta ordezkatzaileak hartuko direla.
- Gobernu Irekiaren oinarriak eta analisirako tresna nagusiak ezagutzea.
- Gardentasun eta parte-hartze alorrean arrakasta izan duten esperientziak partekatzea, inspirazioa hartzeko ideia eta estrategia berrietarako.
- Gogoeta esparru izatea, Nafarroako testuinguruan Gobernu Irekirako ideia berriak praktikan jartzeko aukera emanen duen bide-orriaren diseinua bultzatzeko.

Lantegian 23 pertsonak hartu zuten parte (zuzendaritza nagusietako 7 pertsona, kabinete burutzako 4, idazkaritza orokor teknikoetako 5, erakunde publikoen zuzendaritza orokorretako 3, sozietate publikoen gerentzietako 3 eta fundazio publikoetako pertsona 1).

Lantegiko saioa bidalitako programari jarraikiz garatu zen, eta dokumentazioa ondoko estekan kontsultatu eta jaitsi daiteke:

<https://gobiernoabierto.navarra.es/eu/gobernantza/zabalkundea/jarduera-agenda/1539/gobernu-irekiari-eta-administrazio-publikoari-buruzko-lantegia>

✓ **Online parte hartzeko ikastaroa**

"HERRITARREN PARTE-HARTZEA, KUDEAKETA PUBLIKORAKO FUNTSEZKO TRESNA" ikastaroaren I. edizioa antolatu zen. NAPIren bidez eskaintzen den ikastaroa da, partaidetzan aditua den profesional baten tutoretzapean; izena eman duten 20 pertsonaren tutore izan da. Herritarren parte-hartzeari buruzko hastapen ikastaroa da, politika publikoak zehaztu eta kudeatzerakoan zer garrantzia duen jakiteko. Gaiak: parte-hartzea politika publikoak planifikatu eta kudeatzerakoan garrantzitsua den lan tresna; parte-hartze sozialerako tresnak txertatzeko betebeharra, araudiak administrazioei ezartzen diena; eta, azkenik, parte-hartzea bezalako lan metodoaren onurak eta aukerak.

Ikastaroaren zabalkundea Langilearen Atariaren bidez egin zen, eta posta elektronikoz helarazi zitzaizen partaidetzarako unitateei eta departamentu desberdinetan plan, programa edo estrategiak sustatzen dituzten unitateei. 60 lagunek eman zuten izena.

Ikastaroaren edukiak Herritarren Partaidetzarako Erkidegoen arteko Sarea osatzen duten autonomia erkidegoei eskaini zitzaizkien. Gutxienez, Valentziako, Balearretako, Errioxako, Asturiasko eta Galiziako gobernuei bidali zitzaizen.

1.2.2. Toki erakundeekin lankidetzan egindako jarduketak

1.2.2.1. Nafarroako Gobernuak eta Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioak lankidetzan hitzarmena sinatzea

Uztailean Gobernu Irekiaren arloko lankidetzan hitzarmena sinatu zen Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioarekin eta Toki Administrazioaren eta Despopulazioaren Zuzendaritza Nagusiarekin. Horrela, berriro egin da elkarlanean aritzeko asmoa, gai honen kudeaketan eraginkortasun, efizientzia eta ekonomia handiagoak lortzeko, elkarrekin partekatuz informazioa, jardunbide egokiak, prestakuntza eta aholkuak.

Hitzarmenerako esteka: https://gobiernoabierto.navarra.es/sites/default/files/ub201220-convenio_de_colaboracion_entre_la_dg_de_presidencia_y_gobierno_abierto_l_.pdf

1.2.2.2. Toki erakundeentzako dirulaguntzak

Lehendakaritzako eta Gobernu Irekiko zuzendari nagusiak urtarrilaren 7an emandako 1E/2020 Ebazpenaren bidez, deialdi hau onetsi zen: "Toki entitateei, toki ekintzako taldeei, garapenerako lankidetzako GKE-ei, herritarren elkartei eta irabazi asmorik gabeko beste entitate batzuei dirulaguntzak emateko deialdia, horien bidez 2020an proiektuak gara ditzaten Nafarroako Foru Komunitatean herritarren parte-hartzea bultzatu eta sustatzeko".

Toki erakundeen 34 proiektu aurkeztu ziren, eta 19k lortu zuten diruz laguntzeko beharrezko puntuazioa. Azkenean, batez ere pandemiaren ondorioz, haietako 7k uko egin zioten dirulaguntzari.

Proiektuak justifikatu ondoren, Lehendakaritzako eta Gobernu Irekiko zuzendari nagusiak abenduaren 31n emandako 570E/2020 Ebazpenaren bidez, honako dirulaguntza hauek eman zitzaizkien erakundeek:

Toki erakundea	Proiektua	Emandako dirulaguntza
Tuterako Udala	Tuterako egungo egoeraren diagnostikoa eta analisi estrategikoa (AMIA)	7.436,03 €
Lekunberriko Udala	Partaidetza bidezko Hiri Diagnostikorako Proposamena + Ekintza Plana	4.750,05 €
Abartzuzako Udala	"enREDando 1,0"	1.499,09 €

Toki erakundea	Proiektua	Emandako dirulaguntza
Burgiko Udala	Burgiko Aita Tomás plazaren egokitzea parte-hartzearen bidez erabakitzea	3.856,22 €
Leringo Udala	Leringo alde zaharreko mugikortasunari buruzko azterketa	5.052,29 €
Garesko Udala.	Garesen energia berriztagarriko herritar talde bat sortzeko partaidetza prozesua	4.545,75 €
Larraungo Udala	Bizitza soziokulturala, azpiegiturak eta ekipamenduak	2.122,65 €
Bortziritako Euskara Mankomunitatea	Euskararen Plan Estrategikoa	4.376,11 €
Erronkariko Udala	Eskola zaharraren erabilerak zehazteko partaidetza prozesua	3.570,20 €
Lakuntzako Udala	Lakuntzako Mugikortasun Plana	1.991,95 €
Etxauriko Udala	Etxauriko parte-hartze bidezko diagnostikorako proposamena	2.298,41 €
Lizarrako Udala	Genero eraginaren ebaluazioa	3.619,77 €
	Guztira	45.118,52 €

✓ **Dirulaguntzak toki erakundeekin batera ebaluatzea eta 2021erako oinarri berriak prestatzea**

Aurreko deialdietako partaidetzarako laguntzak ebaluatze aldera, eta 2021eko deialdia hobetzeko asmoz, toki erakundeei galdetegi bat bidali zitzaion eta bilera egiteko deia egin zen, erakundeekin proposamen onenen konparaketa egiteko. Azterketa horren ondorioz, berri egin ziren dirulaguntzak, deialdi berrian hobekuntza interesgarriak eginda.

Dirulaguntzak banatzeko oinarri berriak prestatu ziren, proiektuetarako kreditua handituta (50.000 eurotik 100.000 eurora), eta oinarri bereziak idatzi dira, toki erakundeentzat bakarrik (lehenago elkarrekin, gobernu kanpoko erakundeekin, toki ekintzako taldeekin eta abarrekin partekatzen zituzten dirulaguntzak).

1.2.2.3. Haurren eta nerabeen parte-hartzea toki erakundeetan

Haur eta nerabeek toki erakundeetan parte-hartzea sustatzeko proiektuak aurrera jarraitzen du. Proiektuaren helburuak dira:

- Proiektuan parte hartzen duten udalei laguntzea haurren partaidetza organo bat diseinatu eta abian jar dezaten.
- Esperientzia horiek sistematizatzea eta haietatik eratorritako ezagutza transferitzea, Nafarroako beste udalei jarraibideak emanen dizkien gidaliburu praktikoaren bidez.
- Udalen arteko sareak eta aliantzak sortzea

Irailean eta urrian, bilerak egin ziren haur eta nerabeen partaidetza sustatzeko esperientzia pilotuan parte hartu zuten 5 udalekin (Zizur Nagusia, Eguesibar, Cintruénigo, Castejón eta Mendabia).

Bileraren helburua Gobernu Irekiaren eta Herritarrentzako Arretaren Zerbitzua aurkeztea zen, toki erakundeetan haur eta nerabeen partaidetza organoak sortzeko Partaidetza Gida formalki entregatzea, eta, aldi berean, talde eragile bat sortzeko proposamena egitea, toki erakunde horiei laguntza eta prestakuntza emate aldera. Horrela, lehen eskutik ezagutu ahal izan da udalerrri bakoitzeko partaidetza organoen egoeraren erradiografia.

Udala	Eguna
Castejón	Irailaren 30a
Mendabia	Irailaren 30a
Eguesibar	Urriaren 13a
Cintruénigo	Urriaren 14a
Zizur Nagusia	Urriaren 16a

Talde eragilea 4 udalek osatu zuten eta lehenengo bilera (online) abenduaren 22an egin zen, parte hartzen duten udalen arteko harremana ezartzeko, elkarren artean informazioa partekatzeko eta 2019an hasitako prozesuko ideiak baliatzea ahalbidetzen duten ekintzak antolatzeko.

Bileran, prestakuntza pilula batzuk egitea erabaki zen, otsail eta martxoko hiru ostegunetan; bertan azaldu ziren, besteak beste, abiapuntuko marko teorikoa eta estatuko beste udalerrri handi eta txiki batzuetako esperientziak, Nafarroako Foru Komunitatean haur eta nerabeen partaidetza organoak izatea ahalbidetuko duen mugimendua bultzatzen joateko, eta, aldi berean, bi urtean behin estatu mailan egiten diren topaketetan ordezkagarritasuna lortzeko.

Beste ekintza batzuk, haur eta nerabeen parte-hartzea bultzatzeko:

- Aliantzak sortzeko bilerak erakundeekin:

Erakundea	Eguna
NHBBZ	Urriaren 27a
UNICEF	Azaroaren 13a
Nafarroako Eskola Kontseilua	Abenduaren 18a

Haur eta nerabeen partaidetza dela eta antolatzen ditugun ekintzen berri ematea eta lankidetzan aritzeko aliantzak ezartzea izan da helburua.

Nafarroako Hezkuntza Berezirako Baliabideen Zentroak (NHBBZ) Nafarroako 9 ikastetxe publikotan garatzen eta laguntzen du Ikas Komunitateak Programa; programak berezko du ikastetxeen funtzionamendu dinamikan parte-hartzea, baita inguruko komunitatearekiko interrelazioa ere.

UNICEF 2018an hasi genuen esperientzia pilotuan elkarlanean aritu zen, eta gure partaidetza ekintzak bere "Haurren Lagunak diren Hiriak" proiektuan bateratu ditu. UNICEFek, NHBBZrekin

batera, lagundu digute partaidetza organoak sortzeko interesa izan dezaketen toki erakundeen mapa egiten.

Toki erakunde hauek dira: Viana, Lesaka, Villatuerta, Mendigorria, Murchante, Betelu, Lecumberri batez ere, baita Iturmendi, Olazti, Urdiain eta Iruña ere.

- Baliabideak prestatzea:

Bestalde, haur eta nerabeen parte-hartzeari buruzko bideo bat grabatu da neska-mutilekin, non Parte-hartze Demokratikoaren Legea beren hitzekin azaltzen duten. Bai ikastetxeetan, bai haur eta nerabeekin zerikusia duten gizarte-erakundeetan material didaktiko gisa erabil daitekeen tresna da.

1.2.3. Jarduketak GKEekin eta elkarteekin

1.2.3.1. Dirulaguntzak

Lehendakaritzako eta Gobernu Irekiko zuzendari nagusiak urtarrilaren 7an emandako 1E/2020 Ebazpenaren bidez, deialdi hau onetsi zen: "Toki entitateei, toki ekintzako taldeei, garapenerako lankidetzako GKE-ei, herritarren elkartei eta irabazi-asmorik gabeko beste entitate batzuei dirulaguntzak emateko deialdia, horien bidez 2020an proiektuak gara ditzaten Nafarroako Foru Komunitatean herritarren parte-hartzea bultzatu eta sustatzeko".

Toki ekintzako taldeek, Garapenerako lankidetzako GKEak, herritarren elkarteek eta irabazteko asmorik gabeko beste elkarte batzuek 38 proiektu aurkeztu zituzten; haietatik 15ek lortu zuten dirulaguntza jasotzeko beharrezko puntuazioa. Azkenean, batez ere pandemiaren ondorioz, haietako 8k uko egin zioten dirulaguntzari.

Proiektuak justifikatu ondoren, Lehendakaritzako eta Gobernu Irekiko zuzendari nagusiak abenduaren 31n emandako 570E/2020 Ebazpenaren bidez, honako dirulaguntza hauek eman zitzaizkien erakundeek:

Erakundea	Proiektua	Emandako dirulaguntza
Koinequalitas Fundazioa	Topaketak: Nafarroako erakunde sozialak elkartu eta ahalduntzeko foroa	4.065,45 €
Gizakien salerosketaren Aurkako Ekintza Elkarte	Las Poderosas	5.054,87 €
Aralar Nafarroako Ludopaten Elkarte	Plan estrategikoa prestatzea	3.032,92 €
Cederna-Garalur elkarte	Eskualdeko elikadura bultzatzeko parte-hartze prozesua	3.428,46 €
AZ Ekimena Alde Zaharra auzo elkarte	Auzoaren lankidetzazko diagnostikoa, 2020ko jardunaldien diseinua, jardunaldiak, ebaluazioa eta itzulketa	1.313,47 €

Erakundea	Proiektua	Emandako dirulaguntza
Munduko Medikuak	“Zure auzoa zure etxea” programako ekintzak	3.523,79 €
Nafarroako Unibertsitate Publikoa (NUP)	Ikasleen Parte-hartzerako Plana	4.043,90 €
	Guztira	24.462,86 €

✓ **Dirulaguntzak elkarteekin batera ebaluatzea eta 2021erako oinarri berriak prestatzea**

Aurreko deialdietako partaidetzarako laguntzak ebaluatze aldera, eta 2021eko deialdia hobetzeko asmoz, toki ekintzako taldeei, Garapenerako lankidetzako GKEari, herritarren elkarteei eta irabazteko asmorik gabeko beste elkarte batzuei galdetegi bat bidali zitzaien, eta bilera egiteko deia egin zen, proposamen onenak konparatzeko. Azterketa horren ondorioz, dirulaguntzak berriro egin ziren, deialdi berrian hobekuntza interesgarriak eginda.

Dirulaguntzak banatzeko oinarri berriak prestatu ziren, kreditua handituta (30.000 eurotik 60.000 eurora), eta oinarri bereziak idatzi dira, soilik herritarren elkarteentzat (lehenago toki erakundeekin partekatzen ziren dirulaguntza horiek).

1.2.4. Beste administrazio batzuekiko harremanak

1.2.4.1. Herritarren Partaidetzarako Erkidegoen arteko Sarearen topaketetan parte hartzea

Herritarren Partaidetzarako Erkidegoen arteko Sarea 2016ko apirilean eratu zen, Zaragozan, herritarren parte-hartzearen arloko informazioa trukatu, ahaleginak koordinatu eta proiektu batzuk partekatzeko asmoz. Topaketa horren ondorioz gutun bat sinatu zen, autonomia erkidegoetan herritarren parte-hartzea sustatzeko. Gutunaren edukia esteka honetan ikus daiteke: <https://gobiernoabierto.navarra.es/eu/gobernantza/gobernu-irekiaren-zabalkundea>

Ordutik aurrera, urtean behin, bilerak egiten ziren erkidego desberdinetan. Hain zuzen ere, Nafarroa 2017ko urrian izan zen sarearen bileraren antolatzaile.

Aurtengo lehenengo bilera apirilean egin behar zen, Asturiasen, baina –pandemiaren ondorioz– urrira arte atzeratu zen eta online egin zen. Nafarroak parte hartu zuen, eta hitzaldi bat aurkeztu zion sareari, Nafarroako Gobernuak partaidetzaren arloan burutu zituen ekintza adierazgarrienak azaltzeko.

1.2.4.2. Estatuko Gobernu Irekiaren Batzorde Sektorialean parte hartzea

Gobernu Irekiaren Batzorde Sektoriala administrazio publikoen arteko koordinaziorako, lankidetzarako eta eztabaidarako gunea da, esperientziak trukatzeko, baita Gobernu Irekiaren arloko ekimen bateratuak garatzeko eta haien jarraipena egiteko ere.

1.2.4.3. Gobernu Irekiaren Foroan parte hartzea

Administrazio Publiko desberdinetako ordezkariak, esparru akademikoak eta gizarte zibilak osatutako foroa.

2020ko urriaren 29an, Estatuak Gobernu Irekiaren IV. Plana onartu zuen foro horretan; planaren bidez, bi konpromiso hartu zituen Nafarroak. Haietako bat haur eta nerabeen parte-hartzeari buruzkoa zen.

Esteka:

<https://transparencia.gob.es/transparencia/eu/transparencia/Home/index/Gobierno-abierto/planes-accion.html>

1.2.5. Parte-hartzearen gaineko sentsibilizazioa areagotzeko eta partaidetza sustatzeko bestelako jarduerak

1.2.5.1. Herritarren parte-hartzearen arloko jardunbide egokien aitortza, 2018-2019 aldiari dagokiona

Otsailaren 29an amaitu zen jardunbide egokiei buruzko proiektuak aurkezteko epea; deialdia honen bidez argitaratu zen: Lehendakaritzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko kontseilariaren 198/2019 FORU AGINDUA, Nafarroan herritarren parte-hartzearen arloko jardunbide egokien aitortza egiteko deialdia egiten duena.

Guztira 19 hautagai aurkeztu ziren aukeran zeuden 4 kategorietan; 4 hautagai Nafarroako Gobernu departamentuen eta/edo enpresa publikoen kategorian; 9 hautagai toki erakundeen kategorian; 5 hautagai toki ekintzako talde, unibertsitate, ikerketa talde, ikastetxe, fundazio, GKE, herritarren antolakunde eta elkarte, profesionalen elkargo, sindikatu eta komunikabideen kategorian; eta hautagai bat enpresa pribatuen, enpresaburuen elkarte eta kooperatiben kategorian. Hain zuzen ere, azken kategoria esleitu gabe geratu zen.

Irailean epaimahaia eratu zen, deialdiko argibideak oinarri hartuta, eta honako kide hauek izendatu ziren: Joseba Asiain (Lehendakaritza eta Gobernu Irekiaren zuzendari nagusia, epaimahaiko burua), Itziar Ayerdi (Gobernu Irekiaren eta Herritarrentzako Arretaren Zerbitzuko zuzendaria), Eva Zarranz (NAPIko zuzendari eta gerentea), Juan Jesús Echaide (Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioa), Jesús Oliva (Nafarroako Unibertsitate Publikoa, Soziologia eta Gizarte Lan Departamentuko irakaslea), Jesús M^a Ezponda (Nafarroako Unibertsitatea, Nafarroako Unibertsitateko idazkari nagusia), Carmen Jusué (Iruñeko UHUN Zentroko zuzendaria), Iñaki Lavilla (Soziologia eta Politologia Elkargoko ordezkaria) eta Ana Etxaleku (Herritarren Partaidetzarako Ataleko burua: epaimahaiko idazkaria).

Epaimahaia hainbat aldiz bildu ondoren, dagokion ebaluazioa egin eta eztabaidatu ondoren, honako proiektu hauek aukeratu dira aitortzarako:

KATEGORIA	ENTITATEA	PROIEKTUA
Nafarroako Gobernuaren departamentuak eta/edo enpresa publikoak	Lurralde Antolamenduko Zuzendaritza Nagusia	Herri atseginak adinekoekin. CorellaAtsegina, LerinAtsegina, BurgiAtsegina
Toki erakundeak	Etxarri Aranazko Udala	Etxarri Aranazko plaza ingurua hobetzeko parte-hartze prozesua
	Bakaikuko Udala	Udalerraren gaineko hausnarketa estrategikoa egiteko parte-hartze prozesua
Tokiko ekintza taldeak, unibertsitate eta ikerketa taldeak, ikastetxeak, fundazioak, GKEak, herritarren erakunde eta elkarteak, lanbide elkargoak, sindikatuak eta hedabideak.	Espainiako Gurutze Gorria	Bizikidetza plana. Gizarte eta bizitegi diagnostikoa, eta Murchanten esku hartzeko proposamena
	"Hezitzaile Eskola" Ikastetxe Bateratua	Nire auzoa, nire jolastokia

Aitortza publikoa emateko ekitaldia 2021. urtean egitea proposatu zen, pandemia dela eta.

Ekimen horien berri zabaltze aldera, saritutako proiektu bakoitzari buruzko bideo labur bat garbatu da; bideoak datozen asteetan argitaratuko dira; horrez gain, fitxa guztiak maketatu dira, jardunbide egokien "bankua" sortzeko.

Datorren 2021. urtean jardunbide egokien deialdi berria argitaratuko da, ezaugarri berberak dituen.

1.2.5.2. Gazteen parte-hartzea sustatzeko antzerki lana. Abiapuntua.

Nafarroako Gobernuko Herritarren Partaidetzarako Atalaren ekimenez, gidoi bat idazteko lanak hasi dira, gazteak zuzendari eta protagonista izanen dituen antzerki lan bat –herritarren parte-hartzeari buruzkoa– moldatu eta antzezteko. Gaztelaniz eta euskaraz antzezteko aukera. Obra 30 minutu ingurukoa izanen da. Amaieran denbora tarte bat utziko da gazteekin hitz egiteko eta eztabaidarako.

Gazteleketan antzeztu ahal izanen da, interesa duten herrietako kultur etxeetan, ikastetxeetan (DBH, Lanbide Heziketa eta Batxilergokoetan) eta unibertsitateetan, baita herritar gazteen elkarteetan eta interesa duten bestelako entitateetan ere.

Helburua, oro har, hau da: gazteek gizartean parte-hartze kritiko eta sortzaile bat egiteko duten gaitasuna sustatzea, herritar ekintzaile eta etikoki arduratsu gisa.

Herritarren Partaidetzarako Zerbitzuan baliabide gisa prestatzen den bigarren antzerki lana izanen da. Aurrekoa "Lau aulki hirurendako" 31 aldiz antzeztu zen (2018an eta 2019an).

Obraren planteamendurako, topaketa bat antolatu zen Nafarroako Gazteriaren Institutuko langileekin, gazterian adituak diren teknikariek (hainbat udaletakoekin) eta gazteekin, gaia zehazten laguntzeko eta –testua sortu baino lehen– gidoia bideratuko duten iradokizunak biltzeko.

Topaketak 2020-10-21ean egin zen Nafarroako Gobernuaren Jauregiko Joakin Elizondo aretoan, formatu hibridoan. Pertsona batzuk aretoan agertu ziren; beste batzuk, aldiz, online konektatu ziren. Guztira, 12 lagunek hartu zuten parte, eta ideia eta ikuspuntuak partekatu zituzten.

Bilera prestatu eta bideratzeko planteatu ziren galderetako batzuk:

- Zeintzuk dira mezu gakoak, komunikatzen saiatzeko? ("Parte-hartzea(k) da/ahal du/behar du...")
- Gaizki-ulerturik egonez gero, zerk kezkatzen zaituzte eta zergatik?
- Zeintzuk dira gazteen errore nagusiak, alde zuzenetik pentsatutako ideiak edo gaizki-ulertuak parte-hartzeari buruz?
- Bururatzen al zaizkizue horrelako prozesuetan gertatutako anekdotak, egoera dibertigarriak edo gatazkatsuak? Ohiko kasuak zein ez-ohikoak izan daitezke.
- Beste ekarpen batzuk.

Lehenago deskribatutako prozesuaren ondorioz, obraren gidoia daukagu, baita muntaia ere, 2021ean lehen aldiz antzetzeko.

1.2.5.3. Gidaliburuak argitaratzea eta hedatzea.

Hiru gidaliburu berri argitaratu dira; haien edukia 2019. urtean landu zen. Gidaliburu horiek toki erakundeentzat eta gainerako administrazioentzat lagungarriak dira gardentasun eta herritarren partaidetzarako politikak diseinatu eta ezartzeko. Herritarrak gai publikoetan inplikatzeko da helburua, baita administrazio publiko irekiagoak izatea ere.

- **Esku-hartze komunitarioan parte hartzeari buruzko gidaliburua:** parte-hartzea hobetzen eta areagotzen lagundu nahi du, arreta hainbat antolakunde komunitariotako lanean gertatzen diren prozesuetan jarrita.

http://centroderecursos.alboan.org/ebooks/0000/1445/9-NAV-PAR-4_EU_.pdf

- **Haurrek eta nerabeek toki mailan parte hartzeko organoak diseinatzeko gidaliburua:** Nafarroako Foru Komunitateko udalerrietan haur eta nerabeen partaidetza sustatzea du helburu. Dokumentua Nafarroako Parte-hartze Demokratikoari buruzko martxoaren 22ko 12/2019 Foru Legean oinarritzen da; izan ere, VI. titulua neska-mutilen eta nerabeen parte-hartzeari buruzkoa da.

https://gobiernoabierto.navarra.es/sites/default/files/eus_guiaparticipacioninfantil.pdf

- **Tokiko komunitateetan kulturarteko bizikidetzak sustatzeko parte-hartzeari buruzko gida:** kulturarteko partaidetza komunitarioa toki mailatik ahalbidetzeko tresna bihurtzea du helburu.

https://gobiernoabierto.navarra.es/sites/default/files/eus_guiaparticipacionintercultural.pdf

Esku-hartze komunitarioan parte hartzeari buruzko gidaliburua eta haurren partaidetzari buruzko gidaliburua, udan zehar, postaz bidali zen Nafarroako mankomunitate, udal eta kontzeju guztietara.

Gidaliburu guztiak jaitsi daitezke, bai gaztelaniaz, bai euskaraz.

1.2.6. Beste erakunde batzuek antolatutako ekitaldiak

Herritarren Partaidetzarako Atalak beste erakunde batzuek antolatutako honako ekitaldi hauetan parte hartu du:

Eguna	Ekintzaren izena	Antolatzaila
2020/02/15	Emakume on	NABI
2020/02/26	Gobernu Irekiaren Batzorde Sektorialean parte hartzea	Lurralde Politikaren eta Funtzio Publikoaren Ministerioa
2020/05/10	Gobernu Irekiaren Foroan parte hartzea	Lurralde Politikaren eta Funtzio Publikoaren Ministerioa
2020/09/19	Gobernu Irekiaren Batzorde Sektorialean parte hartzea	Lurralde Politikaren eta Funtzio Publikoaren Ministerioa
2020/10/27	Herritarren Partaidetzarako Sare autonomikoaren 9. topaketa (I. birtuala)	Asturias
2020/10/29	Gobernu Irekiaren Foroan parte hartzea	Lurralde Politikaren eta Funtzio Publikoaren Ministerioa
2020/11/16	2020ko Gazte Sarien Aholku Batzordean parte hartzea	Nafarroako Gobernuko Gazteriaren Zuzendariordetza

1.2.7. Komunikazio ekintzak

1.2.7.1. Prentsa oharrak

- Nafarroako Gobernuak herritarren partaidetzarekin lotutako erakunde publiko zein pribatuen jardunbide onak aitortzeko bigarren edizioa deitu du – 2020/01/14
